

ARGIA



KRISI EKONOMIKOA

Betiko errezetek, betiko ondorioa: herritarren pobretzea

26-31. orriak



***"Jendea aske
izanen da
edo hilen da"***

33 | IRAN



***"Kuantitatiboki
eta kualitatiboki,
arrakastatsuak izan
dira Ekotopaketak"***

36 | ALAITZ AJURIAGERRA



***'Hondamendia',
Axut eta Artedramaren
lan berria***

44 | ANTZERKIA



Non naturalak
jogurtak bakarrik diren

Bertsolari
Txapelketa
Nagusiko
saioen liseriketa
kolektiboa,
gaingabetu gabe

Podkast berria

urriaren 25etik aurrera asteartero
ARGIAren webgunean, bideoz ere ikusgai

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ARGAZKIA: **ANDIA** / ALAMY STOCK PHOTO

Iritziak

- 21 | ENDIKA ALABORT
- 22 | ANE ABLANEDO
- 23 | MIKEL BASABE
- 23 | CASTILLO SUAREZ
- 24 | JON ALONSO

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
DAYBELYN JUARES
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



HODEI TORRES

32 | **EMAKUMEEN BORROKA IRANEN, AMINI ERAIL OSTEAN**

Errefuxiatuta Bilbon bizi den Maryam Fathi kurdia elkarrizketatu du Amaia Lekunberrik. Sakon azaldu du zergatik izan den beloa gaizki eramateagatik eraildako emakumearen hilketa Iranen jendea kalera atera duen azken tanta. "Iranen aldaketa egongo da. Herritarrak altxatu dira aldaketa beraiek egin nahi dutelako".

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Tanzania eta Ugandaren xehatzea badakar ere, iraganeko logikan segitzen du total petrolio konpainiak

Jenofa Berhokoirigoin

16 | PERTSONAIA | JOXE MARI MUÑO

"Inoiz ez duzu ehuneko ehun lortuko zuk nahiko zenukeen hori"

Miel A. Elustondo

26 | DESJABETUEN KLASA EUROPA

Ondarerik gabeko herritarrak, pobrezia atzaparretan

Urko Apaolaza

36 | EKOTOPAKETAK | ALAITZ AJURIAGERRA

"Komunitateak birsortzean datza gakoa, indibidualismoa baztertzean"

Jenofa Berhokoirigoin

44 | KULTURA

Hondatu da mendia, jausi zaigu bizia

Ainhua Mariezkurrena

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoko

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefona

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:


antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA


iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egileta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.


OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gipuzkoako gizartearen isla?

Zubietan makro-espetze berria eraikitzen ari dira. Agintariek diote oso modernoa izango dela, eta Martuteneako ez bezala, presoen birgizarteratzea bilatuko duela. 2023rako, hurrengo udaberrirako, 500 pertsona giltzapetzeko lekua egiten ari dira bertan –Martutenen dauzkatenen bikoitza–, sei modulutan banatuta, eta kiroldegi eta abarrekin. Espetxeak gizartearen isla izateaz gain, mendekua dira, ordea, eta agerikoa da hori, ehunka zigor-gelez gain, azpiegitura hau egiten ari baitira 200 metrora “ingurumen zentroa” airea kutsatzen ari den lekuan. Ikusiko dugu zein izango diren ondorioak eta harrabotsik sortuko duen inoiz esperimentu kriminal honek; oraingoz ez behintzat. Oroituko ditugu proiektua bultzatzen duten agintarien izenak, Duten kantua abestu bitartean: *kartzelak, beraien jabeentzat*.

 **DANI BLANCO**

 **LANDER ARBELAITZ MITXELENA**





Erdizko larreak arriskuan

 JOSU NARBARTE HERNANDEZ

Baztango paraje horretan egin nahi duten harrobiak hautsak harrotu ditu eskualdean. Egitasmoak ingurumenari eragingo liokeen kalteak larrituta, bizilagunek manifestazioa deitu dute urriaren 12an, Elizondon. Haatik, deitua zuten herri-galdeketa debekatu egin du Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak.

Lehenago ere eman izan du zeresana MAGNA enpresaren egitasmoak, 2014an azken aldiz. Lanen tramitazioa 2020tik aurrera aktibatu zen berriro, eta azken hilabeteetan egitasmoa Udalerriz Gaindiko Proiektu Sektorial (UGPS) gisa izendatzeko proposamena aurkeztu da Nafarroako Parlamentuan.

Harrobiak 100 hektareako hedadura izanzen luke, Aldude mendiko naturgune betean. Inguru hori Kontserbazio Bereziko Ereku izendatuta dago Europar Batasunak sustatutako Natura 2000 sarearen baitan. Ageriko balio ekologikoa ez ezik, eremuak ondare kultural aberatsa ere gordetzen du, hainbat mendetan zehar abeltzaintzarako eremu gisa erabili izanaren ondorioz.

HISTORIA KORAPILATSUA

Erdiz edo Erdizaga izeneko parajea Erregerena mendigunearen baitan kokatzen da, Baztan eta Esteribar haranen mugan (Nafarroa Garaia). Bere izenak adierazten duenez, inguru hori errege-jabetzako

eremu gisa konfiguratu zen Erdi Aroan. Antzinako Erregimeneko lurralde-egituran, ohikoa zen mendialdeak komunitate baten edo gehiagoren jabetza komunal gisa definitzea, eta tokiko bizilagunei egokitzen zitzairen bertako baliabideak ustiatzeko eskubidea: bazka-guneak, gaztainadiak, ira-lekuak, eta abar. Haatik, Erregerena eta antzeko beste eremu batzuk (Aldude/Kintoa, Urbasa, Andia, Entzia, Bardea eta abar) Koroaren jabetza izanik, lurralde-unitate bereziak osatzen zituzten eta haien ustiapena araudi espezifikoen arabera gauzatzen zen.

Baztango herritarren artean balio berezia du Erdizek, bere kokapen eta klima egokia dela bide

Baztango Udalak eskatutako ikerketa historikoek erakutsi dutenez, Koroak partikular bati saldu zion Erregerena mendia XVI. mende hasieran. Zenbait salerosketa-operazioen ondoren, eremuak Gongorako jaunaren esku bukatu zuen, baina 1775ean berriro Errege Haziendara pasa zen. Nolanahi ere, eremuak bi berezitasun mantendu zituen mende horietan zehar. Alde batetik, Baztango zein Esteribarreko lurralde-

tatik at egoten jarraitu zuen, unitate berezia osatuz. Beste aldetik, ohitura zahar bati jarraiki, Baztango bizilagunei aitortu egin zitzairen beren abereak bertara bazkatzera eramateko eskubidea, betiere gauean haranera itzuliz gero.

Egoera Lehen Karlistaldiaren ondoren aldatu zen. 1841ean, Hitzartutako Legeak Nafarroako Foruaren abolizioa ekarri zuen; testuinguru horretan, errege-jabetzako mendiak Estatuaren kontrolpera pasa ziren, eta horrek zenbait neurri hartu (ekarri) zituen haien kudeaketa "arrazionalizatzeko", liberalismoaren printzipio juridiko eta ekonomikoen arabera. XIX. mende bukaeran eta XX. hasieran, egoera horrek Baztango eta Esteribarreko udalen arteko gatazka piztu zuen, lurraldea noren esku geldituko. Gatazka eta zalantza horiek 2018an Nafarroako Parlamentuaren lege batek argitu dituen arren, guztiz konpondu gabe daude oraindik. Testuinguru horretan, harrobiaren erakuntza-proiektuak berriro inarrosi ditu hautsak.

PAISAIA KULTURALA

Hainbat mende mantendutako abeltzaintza-erabilera izan da, hain zuzen ere, Erdizko paisaiaren bilakaera baldintzatu duen faktore nagusia. Inguruko mendien artean babestuta, Erdiz erreka haran txiki bat eratzen du bertan; Foehn efektuari eta ur-emari handiari esker, eremua beti heze dago, abereentzako larre oparoak eskainiz –Baztango bazkaleku onena da–.

Baztango herritarren artean balio berezia du Erdizek, bere kokapen eta klima egokia dela bide. Berezitasun hori agerian gelditu da 2022ko udan Nafarroa osoari eragin dion idortearen harira. Izan ere, Andia, Urbasa eta gainerako tokietako aziendari neguko bazka eman behar izan diete uda amaitzerako. Erdizen zeudenek, aldiz, izan dute bazka freskoa, haran ttipia heze eta berde mantendu baita.

Gainera, Erdiz bezalako guneek balio erantsi bat dute beste mendialde batzuekin alderatuta: ondare kultural bizi izatea. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Zenbat duintasunek



UXUE APAOLAZA LARREA

80 lagun hil ziren, eta 145 zauritu Angroisko tren-istri-
puan: gutxitan ikusten dugu hain grafikoki zenbait
erabaki politikok hil egiten dutela. Tira, *botepron-
toari* jaramon eginez gero, batzuk bai: Valentziako metroa,
Madrilgo ospitale batean gaixo bat hil zenekoa, hodi okerretik
janaria sartzeagatik.

Kontatzen zena, azkenengoan: A gripearen lehen biktimari
hil zenean sabeletik bizirik eta birusik gabe ateratako haurtxoa
hil zuen erizain arduragabe batek. “*¡Asesina!*”, entzun zen nire
lantegian (Madrilen bizi nintzen). Kontatzen zena lehenen-
goan: telefonoz berriketan zebilen makinista baten arduraga-
bekeria laurogei pertsona hil zituen. Noski, “*¡Asesino!*” entzun
nuen lanean.


Badira beste errelato batzuk. Azkenengoan: unitatean lehen
eguna zuen eta psikiatrikoan amaitu zuen erizain batek hori
egin beharra antolaketa eta planifikazio txar baten ondorio izan
zen, murrizketena, lehen lerroan daudenak beti mugan ibili
beharrarena. Lehenengoan: dokumental bat ere egin zen kon-
tatzeko José Blancoren presak, Adifeko arduradunen jarrera,
langileen kexak, teorien bazeuden segurtasun-neurrien falta...
Badago txikitatit makinista izan nahi zuen gizon prestuaren
istorioa ere.

Beren keinu bakoitza, makina izatetik urruntzen dituen edo-
zein jarrera, ahuldade epaitu da epaitegian, medioetan, sare
sozialetan... Ikusi ditugu zigortuta, umiliatuta, negarrez. Entzun
dugu ardura indibiduala. Ikusi dugu sistema oso baten ondorioa
bi bizkar bakartiren gainean. Ezin izan ditut makinistaren hitzak
entzun, ez 2013an “istripua” gertatu zenean, ez orain. Ikuskizu-
na basatia da: bizitza osoan ehundutako duintasun txikitu bat.
Zenbat duintasunek eusten dioten merezi ez duten sistema honi,
zenbat duintasunek berezko arduradunen ohore psikopatei. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Espekulazioa

Senpere, Arbona eta Kanbo
espekulazioaren kontrako topagune
bihurtu dira. Urriaren 8an egin dute
elkarretaratzea Senperen, 1.250.000
eurotan etxe bat saldu dutela salatzeko.
Arbonan, Berruetako lurretan dagoen
espekulazioa berriz ere aktualitate da,
eta urriaren 21etik 23ra Marieniako
laborantza lurak okupatuko dituzte.

Amiantoia

Espainiako Kongresuan aho batez
onartua izan eta gero, azken urratsa
egin du amiantoaren biktimei kalte-
ordainak emateko funtsaren lege-
proposamenak, Senatura iritsita.
Funtsera 25 milioi euro bideratuko
dira. ASVIAMIE amiantoaren biktimen
elkartek azaldu duenez, %90ak ez daki
indemnizazio horiek jaso ditzakeenik.

Iruzurra

Osakidetzako EPE Enplegu Publikoetako
Eskaintzetan 2018an salatutako
filtrazioaren auzian, Arabako Auzitegiak
adierazi du ez duela Osakidetzako
aurreko zuzendaritza auzipetuko. LAB
sindikatuak eman du erabakiaren
berri, berak jarritakoa baita auzitegiak
ukatutako helegitea. Hogeia bat
pertsona ikertu dituzte.

EKONOMIA

Salbuespen egoerarik ez aberatsentzat



AINHOA ETXAIDE
AMORROTU

Merkatuaren jabeek, edonolako muga edo kontrolen bat onartzea eskatzen zaienean, behar bestetan esan dute ezetz –alokairuen eta oinarritzko jakien kasuan ikusi dugunez–. Gobernuari aurre egin diote argi indarraren negozioan gehiegizko etekinak zergapetzea planteatu denean; baita ihes egitearekin mehatxatu ere, erreforma fiskalaz hitz egiten den bakoitzean. Egoera honetan jarri dute mahai gainean Espainiako Estatuan “elkartasun zerga” deitu dutena.

Datozen asteetan negoziatuko dira instituzio guztietan 2023ko aurrekontuak; herritarrek babesteko eta eredu sozioekonomiko ezberdin baterako bidea egiteko politika publikoentzako aurrekontuak, hain zuzen ere. Finantzia-zioaren atalean halako zerga neurtu eta mugatuan urratsa ikusi daiteke, txikia baina norabide egokian. Praktikan, benetako erreforma fiskalik ez dela izango iragartzen duen neurria da ordea.

Gurean, zerga horrek ez du ezer ekarriko. Aldiz, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan iragarritako neurri fiskal bakarra bizitzaren garestitzea aurre egiteko zergapetzea moldatzea da, diru pixka bat herritarren eskura jartzeko erabiliko den deflatazioa: motzera ezer gutxi konponduko duen neurria, eta luzera arazoa larrituko duena.

Politika publikoak inoiz baino beharrezkoagoak direnean, eta errealitate ekonomikoari buelta emateko esku hartze publikoa ezinbestekoa izango denean, erreforma fiskalaren eztabaidari izkin egitea zulo beltzera garamatzan bidean sakontzea da, zalantzarik gabe. 2008an esan ziguten gastu publikoa mugatu behar zela; 2022an aberastasunaren metaketak ez mugarik ez salbuespenik duela esaten ari zaizkigu. ●

ANALISIA



Duina = jasangarria

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Nire bizimoduak zenbat emakume zapaltzen ditu? Jakin nahiko nuke. Nire burua gaztigatzen ibili gabe, baina arduraz, bizimoduan aldaketak egiteko ipar ulergarria litzateke. Bizimoduko alor bakoitzean gauzak era batera eginda X emakume* zapaltzen ditut, beste era batera eginda X, eta beste era honetara inor ez. Eguneroko beharrak asetzeko harreman eta formula berriak sortzen jarri ahal gaitu ikuspegi horrek, eta klima larrialdiak eskatzen duen urgentziaren aurrean, dramatik eta galera sentimendutik baino, ilusiotik eta poetik planteatuko genuke bidea horrela. Izan ere, kapitalismoak izorratu dituenek biak, bi borrorak berberak dira: Amalurraren aldekoa eta emakumeen* bizitza duinaren aldekoa.

Zenbat emakume* zapaltzen ditut hipermerkatuan letxuak erosita? Eta herriko dendan erosita? Eta azokan erosita? Eta kontsumo taldean? Zenbat emakume* zapaltzen ditut gurasoak zaharren egoitzara eramanda? Eta hainbat ordu zaintzaile bat kontratatuta? Eta zaintzeko txandak eginda? Zenbat emakume* zapaltzen ditut Iberdrolaren argia pizten dudanero? Eta Goienerrena piztuta? Eta eguzki plakak teilatuan jarrita? Eta argia itzalita? Zenbat emakume* zapaltzen ditut arropa Zaran erosita? Eta iterneten erosita? Eta herriko dendan? Eta jostunari eskatuta? Eta beste batena berrerabilita?

Agerikoa da gaur gaurkoz eremu askotan ez dagoela 0 zapalkuntza lortzerik: adibidez, dena laborariei zuzenean erosiko bagenie ere, Euskal Herrian lurjabe izanik ekologikoan ari diren baratzezainen urte osoko soldata batez beste 14.990 eurokoa da. Baina 0 ezinezko izanik ere, beti dago norberaren hautuen baitan emakume* zapaldu kopuruan gehiago edo gutxiago eragitea.

Artikulu honetan emakume*-ren izartxoak hartzen ditu, generoa bizitzeko era anitzez gain, baita zapalkuntza egoeran diren gizonezko langileak ere. Baina sektorez sektore azpiratuenak emakumeak direla bistartzeko erabili dut emakume* hitza: munduan gose diren 1.200 milioi pertsonetatik %70 nekazariak dira eta hauetatik %70 emakumeak eta neskatok.

Gure ekintza bakoitzak zapaltzen duen emakume* kopuru horretan barnertuta leudeke, noski, produktu hori sortzen jatorrizko herrialdean zapalduko emakumeak*, produktu horren ustiaketa lurraltetik bidalitako emakumeak*, bidean garraio sistemak zapaldukoak, gure herrian saltzeko katean lanbalditza prekarioek zapaldukoak... Agian orduan “garesti” eta “merke” hitzen balioa aldatuko litzateke, edo beste hitzen bat zabalduko litzateke produktu edo zerbitzu batek zapaltzen dituen emakumeak* 0-tik gora direnentzat.

Gure egunerokoa ez litzateke egungoa bezain “erosoa” eta “merkea”. Baina erabiltzen dugun gauza edo zerbitzu bat 0 emakume* zapaltzera pasatuko genukeen bakoitzean, bizitza asegarriagoa izango litzazuke, dugun gauza hori duina, mundua askeagoa. Eta ziur, CO2 gutxiago kontsumitzen dituen. Agintariak mintzo diren Klima Trantsizioak ez du honetaz deus esaten, agian ekarri nahi diguten bizimodu berrian gauza eta zerbitzu bakoitzak zapalduko dituen emakume* kopurua are handiagoa izango delako. Herritarrok egin beharko dugu, gauza bakoitzaren erabiltzaileak eta emakume* zapalduak elkartuta, ekoizteko eta kontsumitzeko modu zein harreman berriak sortuz. ●

70 milioi

euro galdu ditu Nafarroako Ogasunak Los Arcoseko zirkuituaren salmentan. Maiatzean jarri zuen salgai Nafarroako Gobernuak, eta MSV Group enpresa britainiarrari saldu dio 7 milioi euroan. Zirkuituak urtero 4 milioi euroko zorra eragiten zion gobernuari.

71 milioi

euro AHTrako izango dira, Nafarroak 2023an Madrildik jasoko dituen 103 milioi euroetatik. Espainiako Gobernuak 2023rako aurkeztutako aurrekontu orokorretako datuak dira.

3/4

EAEko 55 urtetik gorakoen %75ek baino gehiagok nahiago luke etxean egon, oinarritzko jarduerak egiteko laguntza beharrean egon arren. Adinekoen bizi-baldintzei buruzko azterlaneko datuak dira.

“Trantsizio ekologikoaren aitzakiarekin gure mendiak eolikoekin bete nahi dituzte”

IÑIGO LEZA

Arabako Mendiak Aske plataformako kidea.

2022-10-06



“PALESTINAK URTEAK DARAMATZA ISRAELGO MATERIAL MILITARRA PROBATZEKO LABORATEGI BIHURTUTA”

“Konbatean probatutako negozioak. ‘Made in Israel’ marka esportatzea okupazioa mantentzeko eta injustizia normalizatzeke” ikerlanaren ondorioa.

2022-10-03

“Nola ulertu azken lau hilabeteetan ETBn helduentzako pelikula bakar bat ere emititu ez izana euskaraz eta aldiz gazteleraz 130 film eman izana?”

JOSU ESTARRONA

EH Bilduko legebiltzarkideak Andoni Aldekoa EITBko zuzendari nagusiari luzatutako galdera.

2022-10-04



Multibertso digitala



DIANA FRANCO

Ez, ez naiz erratu, multibertsoa nahita idatzi dut. Aurreko astean, lagun batek komentatu zizkidan ezgaituak direnentzat metabertsoaren aukera paregabeak. Nik, ordea, Mark Zuckerbergen metabertsoan pentsatzen dudanean giza harreman digitalak berriro menderatzeko estrategia bat baino ez dut ikusten, merkatu berri bat sortuz. Aldaketa bultzatzeko, boterea bere eskutan izateko, behar den dirua jartzeko prest dago Zuckerberg jauna.

Lagun honek diostana interesgarria da, noski, onurak ez dira gutxi mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat, batez ere besteekin berdintasunean harremanak izateko orduan.

Digitala oso gauza gaztea da. Digitala den "lokatz" honekin sortu dezakeguna oso anitza da. Mutazioak jasotzen ditu denbora osoan, gizaki ezberdinen kosmobisio ezberdinak xurgatzen dabil digitala: kosmobisio politikoak, harremanetariakoak, kulturalak, ekonomikoak... baina bitartean, kaleko pertsonok zaila dugu aukera horien guztien artean erabakitzea, zein da gure papera eraldaketa digitalean? Digitala zer den ere azalduko digunik ez baitago, bakarrik dinamika bat erabiltzera bultzatzen gaituena, mundua aldatzen ari delako, lanak aldatzen ari direlako, genekiena jada baliagarria ez delako... Kanpoan geratzea aukera bat ez delako.

Baina, kanpoan geratze hori ere, sortzen den gauza bat da. Zein da nagusiek sortuko luketen mundu digitala? Zein da idazten eta irakurtzen ez dakiten pertsonen sortuko luketen mundu digitala? Zein da ekologistek sortuko luketen mundu digitala? Zein da itsuek sortuko luketena? Eta elbarri batek sortuko lukeen mundu digitala? Irakasleek sortuko luketena?

Metabertsoa txiki geratzen zait, multibertsoa interesgarriagoa egiten zait, aintzagoa, egokituagoa, gizatasun handiagoa. ●

NAZIOARTEA

Erokeria suizida bat

Artikulu hau CTXT-k argitaratu du eta CC by-sa lizentziari esker ekarri dugu.

Kubako misilen krisiak hirurogei urte beteko ditu hilabete honeetan. Gaur egun antzeko egoera batera hurbiltzen ari gara, baina irizki publikoa ilargian dago.

1962ko urriaren 14tik 28ra, mundua erabateko suntsipenaren arian izan zen. Arerio nuklearraren mugetatik gertu suntsipen handiko baliabide militarrek kokatu izanak, sakoneko eta muturreko segurtasunik ezak, eragin zuen krisi hura.

Orduan mundu osoak ulertu zuen zein arriskutsua zen pareko superpotentzia nuklearraren mugetan misilak eta azpiegitura militarrek zabaltzea. Egun horietan Sobietar Batasuneko misil nuklearrek AEBak kolpa zitzaketan Kubatik jaurtita, Turkian jarritako misil amerikarrek gauza bera egin zezaketan bitartean. Pauso bat atzera ematea izan zen irtenbidea, eta, bide batez, Kremliaren eta Etxe Zuriaren artean zuzeneko telefono linea bat irekitzea, "telefono gorri" famatua. Gaur egun Ukrainak jokatzeko du Kubaren papera, baina mundua ilargian dago.

Egoerak ezberdinak dira, baina Mosku egiten ari den ohartarazpenen zentzua orduan Kennedyk egindakoaren bera da: "arrisku existentziala" mahai gainean jartzea. Hortik aurrera, desberdintasunak hasten dira.

Garai hartan "MAD" (*Mutually Assured Destruction*), elkar suntsitze ziurra, deitu zitzaionari buruz Putinek Mendebaldeari egindako ohartarazpenak ez dira funtzionatzen ari. Putinen xantaiak ari dira politikariak eta komunikabideak, 1962tik aurrera kontsentsuzkoa zena aipatu besterik egiten ari ez bada ere. Hondamena begi bistakoa den arren, deseskalatzea negoziatzea, orduan egin zen bezala, baztertuta dagoela dirudi gaur egun. Bazterrekoa zen ideologo nazionalista Alexander Du-

ginen aurkako abuztuko atentatuak bezalakoek -azkenean alaba hil zioten- *think tank* atlantistek ez daukan garrantzia ematen diotenak, edo irailean Baltikoko gasbideen aurka egindakoak -Alemaniaren kontrako atentatuak-, berretsi besterik ez dute egiten AEBek espiala elikatze-ko darabilten abiadura.

Gaur egun guda nuklearrari buruz hitz egiten da bideojokoa balitz bezala. Diana Johnstonen azken liburua izenburua parafraseatuz, *From MAD to Madness*, arrisku komunari buruz Guda Hotzean zegoen kontsentsutik zorakeria suizida antzeko batera joaten ari gara.

Errusia NATOren erasotik defendatzeko, eskura dituen arma guztiak erabiliko dituela esanez Putinek egindako ohartarazpena egiazkoa dela onartu du Europar Batasuneko kanpo politikako arduradun Josep Borrelllek, "baina horrek ez du aldatzen Ukraina sostengatzeko gure erabakia eta batasuna". Otsailean hasitako Ukrainaren inbasio kriminalari baino ez diote erreparatzen, aipatu ere egin gabe 30 urtez berau eragin duten arrazoiak.

Gaur egungo krisiaren erdigunean AEBen ideia hau dago: "Potentzia handi bakarra neu naiz, hala izaten jarraitu nahi dut eta munduan posizioak galtzen ari naiz, baina nire nagusitasun militarra izugarria eta zanpatzailea denez, galera horiek konpentsatzeko erabiltzen dut".

Eskema horretan, Ukrainan nagusitasuna lortzea eta Alemaniaren eta Errusiaren arteko lotura ekonomikoa haustea (teknologia/energia) funtsezkoak dira Eurasia mendean hartzeko.

Eurasia menderatzeko AEBentzat Ukrainak duen garrantzia oso ezaguna da. Washingtonek gutxienez 25 urte daramatza hori aldarrikatzen: Ukraina NATO-n sartzea;

bost minututan Moskun jotzeko gai izango diren misilak han jartzea, baita errusiarren misilen gaitasuna deuseztatu edo atzemateko ere; eta behinola Errusiako loria guztien hiri izandako Sebastopol bihurtzea NATOren base bat Krimean. Horixe zen 2014ko neguan Kieven erregimen aldaketarekin ireki zen perspektiba zehatza. Izan ere, Txinaren estrategia handia –Zetaren Ibilbide Berria (B&RI)– 2013an abian jarri eta Shangaitik hasi eta Hanburgoraino sare energetiko eta komertzial baten bidez Eurasia integratzeari ekin ziote netik, partida oso garbi zegoen planteatua. Alde batean Txinako eta Europako baliabide ekonomiko-komertzialak, Errusiako potentzial energetikoa eta txinatarren inbertsio erraldoiak; beste aldean, AEBen baliabide militarrik.

Alemaniarren (Europar Batasuna) eta Errusiaren arteko lotura energetikoaren hausturari dagokionez, historia eza-guna da. Ez zen Nord Stream 2-rekin hasi, askoz lehenago baizik, gasbideak eraikitzeko eta gas errusiarra esportatzeko 1981eko Bonnen eta Moskuren arteko akordioekin. Merkataritzaren bidez alemaniarrek eginiko distentsio-politikaren mugarri handi hari gupidarrik gabe aurre egin zion Washingtonek hasieratik bertatik, “defentsarako” era guztitako argudioekin eta xantaiekin. Helmut Schmidt kantzilerrak presio horiei eman zien erantzuna argia izan zen: “Esan dezatela nahi dutena, proiektua aurrera doa”. AEBen erreakzioa pistola ateratzea izan zen, Alemanian zeuzkaten tropak erretiratzearekin mehatxu egin eta beste zenbait kontu okerrekin aritu ostean.

Obraren osagaietako batzuk AEBetan ekoizten zirenez, CIAk txertatu zuen hodian presioa kontrolatzeko gai zen software bat, hodiak lehertzeko gai zena. 1982ko udan, gasbidearen obrak leher-tu egin ziren sobietarren lurraldean, 2004an AEBetako Segurtasun Nazionalerako Kontseiluko kide ohi eta aireko armadako militar Thomas Reedek bere memorietan jakinarazi zuenez. Gasbideen aurka aurtengo irailean izandako atentatuak, munduan NATOk gehien kontrolatzen duen itsas eremuetako batean, ez dira beraz, AEBek egin dituen lehen ekintzak Alemaniaren eta Errusiaren arteko lotura energetikoaren aurka.

“Gure aliatu nagusiak, alemaniar gehienek eta Alemania ofizialak, politikan eta hedabideetan, lagun gisa hartzen dutenak, suntsitu ditu gure herrialdeko



Nord Stream 2 gasbidea sabotatua izan ostean.

Arrisku komunari buruz Guda Hotzean zegoen kontsentsutik zorakeria suizida antzeko batera joaten ari gara

industria-jarduerarentzat oinarritzakoa den energia-horniduraren garraiorako kanalak, eta hemen ez da ezer gertatzen?”, galdetu du Albrecht Müllerrek, Alemaniako komunikabide independente nagusiaren editoreak (*NachDenkSeiten*, milioi erdi irakurle ditu, Alemaniako establishmentaren egunkari nagusi den *Frankfurter Allgemeine Zeitung*-en bi-koitza).

Are larriagoa da antigorputzik ez dagoela nabarmentzen duelako: guda nuklearraren aukerak, 1980ko hamarkadan ehunka milaka herritar kalera atera zituenak, bereziki Alemanian, ez dirudi iritzi publikoan kezka handirik eragiten duenik. Zer ari da gertatzen? Egia da 1980ko hamarkadarekiko oso bestelakoa den “kultura giroan” bizi gara, bereziki Alemanian. Ezberdintasun horren alderdietako bat bilatu behar da Europako komunikabideen egiturazko ustelkerian, bereziki nabarmena Alemaniaren.

Establishment-eko komunikabideek egunero azaltzen dizkigute Errusiako armadak Ukrainan egindako krimenak, ukrainarrek egindako krimen

mordoaren gainean ia txintik ere esan gabe. Mendebaldeak kontrolatzen duen Energia Atomikoaren Nazioarteko Erakundearen (IAEA) laguntzarekin diote Zaporizhiako zentral nuklearra bonbardatzen ari direla, nork bonbardatu duen azaldu gabe; Baltikoko atentatuei ez-ikusiarrena egiten diote eta eskuetatik erraz alde egin dezakeen gatazka nuklearraren arriskua banalizatzen dute.

“Munduko egunkari garrantzitsuenak propaganda egiten ari dira hirugarren mundu gerrarako; egia, gardentasuna eta bakea sustatzen dituzten ahotsak, berri, zokoratuak, isilaraziak, baztertuak eta espetxeratuak dira”, dio Caitlin Johnston kazetari australiarrek, lehen aipatutako liburuaren egilearekin zeri-kusirik ez duenak.

1962ko Kubako krisiaren urteurrenean, inoiz baino gertuago gaude egunez egun hazten ari den arriskutik; bere ekonomiaren egiturazko militarismoaren konbinazioagatik, bere lurraldean porrot militarrik eduki ez izanagatik, estatu gisa eratu zenetik indarkeriarako joera argia izateagatik eta gerrak eragiten duen giza sufrimendua azalean bizi ez izanagatik, Amerikako Estatu Batuak munduko arrisku horren epizentroan daude. “Antiamerikanismo” kalifikazioa itsu-itsuentzat utziko dut ondorengo esateagatik: gainbehera etorritako inperio guztiak arriskutsuak dira zalditik jaitziazten dituztenean, baina hemen eta orain ez dago ezer arriskutsuagorik, potentzia hegemoniko gisa duten gainbeheraren aurrean, AEBek daukaten erreakzioa baino. ●

TANZANIA ETA UGANDAREN XEHATZEA BADA KAR ERE, IRAGANEKO LOGIKAN SEGITZEN DU TOTAL PETROLIO KONPAINIAK

Total Energies multinazional frantsesak eta CNOOC China National Offshore Oil Corporation txinatarrek "karbono bonba" ikaragarria dute xede Afrikako Tanzania eta Uganda herrietan: bertako petrolio ateratzeko 400 putzu eta horiek esportatzeko 1.443 kilometroko oliobide berotua. Gutxienez egunean 190.000 petrolio-upel ateratzea aurreikusten dute. Herritarrek eta nazioarteko erakunde ezagunek urteetan bideratu aurkako mugimenduak ez ditu geldiarazi. Ez dira kikiltzen, eta otsailean izenpetu zuten hitzarmena. Lurralde urrunetako baliabideak ustiatzeko joera horretan dagoen kolonialismo kutsua salatu du hainbat Gobernu Kanpoko Erakunde urriaren 5ean plazaraturiko ikerketa berri batean.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Karbono bonba" izendaturiko megaproiektu estraktibistei bideratu genien 2.793 alearen azala. Giro apokaliptikoa zekarren, hondamendia eta mina, biak eskuz-esku. Termino horrek barne biltzen duen errealitatea ezin hobe irudikatzen dute Total Energies multinazional frantsesak eta CNOOC China National Offshore Oil Corporation txinatarrek Ugandan eta Tanzanian xede duten Tilenga izeneko petrolio estrakzioarako azpiegiturak eta baliabidea garraiatzeko Eacop petrolio-hodiak.

400 putzu zulatu nahi dituzte Albert Lakuaren inguruan, gutxienez egunean 190.000 petrolio-upel ateratzeko xedez. Kantitate ikaragarria da eta araberako kutsadura ondorioztatuko luke: urtero

34 milioi tona CO2 isuriko lituzke, hori delarik, Uganda herriarena bider sei.

Munduan litzatekeen petrolio-hodi berotu luzeena dakar karbono-bonba horrek -50 gradutara berotua litzateke, petrolio fluidizatu behar delako garraiatu ahal izateko-. 1.443 kilometroko azpiegitura, Uganda eta Tanzania zeharkatuko lituzkeena, hamasei erre-serba naturalen gainetik pasaz, eta bere bidean desagertzearen diren hainbat animaliren habitatak suntsituz -bestelako herritar, fauna eta florak ere kaltetuz, bistan denez-.

Azpiegitura horrek suposatzen duena ikaragarria da, eta multinazional horiek haien lurraldean -Frantzian eta Txinan- egitea ezin pentsatua dugu, hain da suntsitzailea egitasmoa. Haste-

ko, azpiegituraren eraikitzeak dakarren herritarren kanporatze eta lekualdaketa: 100.000 lagunek utzi beharko dituzte haien etxe edota lurak. Horrek areagotuko du gosetea, lurak laborantzara bideratzen dabiltzalako bertako ehunka familia.

Les amis de la terre Gobernu Kanpoko Erakundeak argitaratu *Un cauchemar nommé Total* ("Total izeneko amesgaiztoa") edota urriaren 5 honetan Survie egiturarekin plazaratu *Eacop, la voie du désastre* ("Eacop, hondamendiaren bidea") txostenak irakurri beharrak dira ohartzeko nola bideratuak diren lur hartze horiek: behartzeak, mehatxuak, presioak, gezurrak... anitz dira diotenak hauturik ez dutela ukan edota informazioz gabe izenpetu behar

"KARBONO BONBA"-RI EZ

Badira urteak herritarrak mobilizatzen direla egitasmo suntsitzailearen aurka. Horrez gain, nazioarteko Gobernu Kanpoko Erakunde ekologistak ere dabiltza aurkako kanpaina bideratzen. Azkenik, Europako Parlamentuak du Total Energies-en jarrera deitoratu.



AFP

izan dutela desjabetzea dakarren dokumentua. Funtsean, Eacopek eta Tilengak ondorioztatu "giza eskubideen urraketak" salatzen duen ebazpena bozkatu zuen Europako Parlamentuak irailaren 15ean. "Atxiloketak, beldurrazteko ekintzak eta jazarpen judizialak giza eskubideen defendatzaileen eta gobernu kanpoko erakundearen kontra", horra instituzioak salatzen duena. Hala ere, adierazpen esanguratsua izanik ere, ez ditu enpresak ezertara behartzen. "Urte bateko tartea" hartzea eskatzen dio frantses multinazionalari, energia berriztagarrietan oinarrituriko bestelako egitasmoak lantzeko eta "bestelako ibilbide baten egingarritasuna" ikertzeko –"ekosistema babestuak eta bertako ur baliabideak zaintzeko"–.

Legedian oinarrituz ere dabiltza aurkariak egitasmoa ezeztatu nahian: urriaren 12an epaituko dute Total Energies Pariseko auzitegian –Net Hurbil hau idazterakoan ez da oraindik iragana, eta ezin kontatu nola defenditu zuen

Petrolio-hodiak zeharkatuko ditu Victoria lakua –mundu mailako bigarren ur-geza erreserba handiena eta 40 milioi herritarren ur iturria dena– eta 200 bat erreka

berea multinazionalak–.

Bioaniztasuna. Hori dugu beste kalitetuetariko bat. Putzuen herena 1926tik babestua dagoen Murchinson Falls eremuan eraikitzekoa dute, eta putzu eta oliobideaz gain, bestelako garraiobi-

deak ere dituzte eginen. Obren garaian kamioiek hilero 600 bat joan-jin eginen lituzkete eta ondotik, putzu batetik bestera autoek 2.000 joan-jin. Albert eta Victoria lakuak lotzen dituen Nilo ibaia ere zeharkatuko luke petrolio-hodiak. Aintziretako ura baliatuko dute –9 milioi litro kubiko urtero–, eta berdin dio bizirauteko ur edangarri erreserba baliosa baldin badute bertako milioika herritarrek ere. Petrolio-hodiak zeharkatuko ditu Victoria lakua –mundu mailako bigarren ur-geza erreserba handiena eta 40 milioi herritarren ur iturria dena– eta 200 bat erreka.

Bill Mc Kibben ekologistak horrela laburbiltzen du: "Badirudi ahal bezain bat animalia kaltetzeko gisan dutela ibilbidea adostu: zulaketa-plataformak Murchison Falls parke nazionalean daude, eta oliobideak Taalako baso-erreserba zeharkatu eta Bugomako basoan sartuko da (bertan daude txinpantze-talde handiak), Tanzania eta Biharamulo erreserba zeharkatu aitzin,

zeinetan bizi diren lehoi, bufalo, altze, tragelaphus imberbis antilope, inpala, hipopotamo, lepoluze, zebra, antilope ruandarrak, sitatunga, sable, urde inurrijale eta colobus gorri tximinoak. Oliobideak Wembere estepa ere zeharkatzen du, hegaztientzako paradisia eta elefanteentzat ehunka kilometro karratuko habitata ere dena. Tanzaniara iristen denean, hiru futbol-zelai heineko ontziek garraiatuko dute petrolio, mangladien eta koralezko arrezifeen artetik, hots, dortokaz eta dugongidoz betetako uretatik".

Istripu bat gertatuz gero –isurtze, sute ala dena delako–, ez da zaila irudikatzea zer nolako desmasia eraginen lukeen. Dena dela, aitzina doa egitasmoa, eta otsailean izenpetu zuen Total Energiesek bi Estatuekin eta CNOOC txinatarrarekin 10.000 milioi dolarreko tratua. Petrolio erreserbak kausitu eta hamasei urtera gauzatu da konpainien ametsa, eta 2025erako bukatu nahi dituzte obrak.

Ez baditu egitasmoak zuzenean diruztatzen ere, *Françafrique* usaina daukate Eacop eta Tilengak –Frantziak Afrikarekin daukan jarrera koloniala izendatzeko terminoa da *Françafrique*–. Emmanuel Macron Frantziako presidentek Yoweri Museveni Ugandakoari ida-

Behartzeak, mehatxuak, presioak, gezurrak... anitz dira diotenak hauturik ez dutela ukan edota informaziorik gabe izenpetu behar izan dutela lur uztea dakarren dokumentua

tztako gutuna dugu frogatzat. "Nitan fidatu zaitezke Frantziako inbestitzaileak eta jakintzak zuenera bideratzeko, eta Frantziak Ugandan duen presentzia emendatzeko", irakurri daiteke iazko maiatzeko gutunean. Estatuburuek eta multinazionalak halakorik ez badute airtortzen ere, aktibista anitzek dute hitz konkretu batez izendatzen baliabide naturalen ustiapena: inoiz bukatu ez zen kolonialismoan gaude oraindik.

ZORRA ITZULI EZINEAN, ESTRAKZIOA BEHARTURIK

Nazioarteko egitura finantzarioek bideratu dirulaguntzak itzuli ezinean, beraien uztak eta lurpeko aberastasun naturalak munduaren iparraldera bideratzera behartuak dira Hego Hemisferioko herri anitz. Zorren eta estrakzioaren arteko lotura xeheki azaltzen dabil Nicolas Sersiron *Dette et extractivisme* ("Zorra eta estraktibismoa") liburuan: Bigarren Mundu Gerraren ondotik abiatutako deskolonizazio prozesuaren biharamunean hasi ziren maileguen politika bideratzen herri aberatsak, Hego-ko herri pobreenek beraiekiko zeukaten dependentzia eta menpekotasuna mantentzeko gisan.

"Kanpoko zorrak ez dira inoiz herri-tarren onurarako izan, eta haien izerdiaz ordaintzen dabilta. Okerrago, palanka gisa erabiliak dira, haien baliabide naturalak eta laborantza-ekoizpenak esportaziora bideratzeko. 'Ezin baduzue ordaindu, zulatu zorua, zorrak ordaindua izan behar du' horra erraten zaiena". 1970eko eta 1980ko hamarkadetan abiatutako zorpetzea ezin ordainduz dabilta Afrikako herri pobreenak. Horren estakuruan, austeritate politikak planteatzera eta laborantza zein baliabide naturalak nazioartearen esku



2021EKO APIRILAREN 11KO AKORDIOA

Total Energies multinazional frantsesak, Ugandako presidente Yoweri Musevenik eta Tanzaniako Samia Suluhuk izenpetu zuten megaproiektu hori bideratzeko akordioa. Ofizialki autengo otsailean abiatu dituzte obrak eta 2025erako nahi dituzte bukatu.



BIOANIZTASUNA KALTETUZ Albert lakuaren inguruko lurretan nahi dituzte zulatu petrolio-putzuak, ondotik hortik Uganda eta Tanzania zeharkatuko lukeen hodi bat bideratuz Indiako Ozeanora arte.

MARTIN DUDEK

uztera behartuak dira. Gainera, lekuko garapenean inbertitu dezaketen dirua halabeharrez zorraren ordainketara bideratu behar dute. Total Energies eta CNOOC konpainiek begi-bistan dituzten Tanzania eta Uganda ditugu Afrikako herri pobreenen eta zorpetuenen artean: 25.537 milioi dolarreko kanpo-zorra lehenarentzat eta 17.206 milioi dolarrekoa bigarrenarentzat. Horregatik dio Sersironek "kolonialismoaz" hitz egiten jarraitu behar dugula. Okerrago, oroitarazten du hastapen batean herri kolonizatzaileek zituztela maileguak galdetu, lur okupatuetak azpiegiturak eraikitze-ko, eta ondotik, nahiz eta beraiek ezer ez galdetu, Afrikako herri independenteek ordaindu behar izan zituztela.

**“Palanka gisa erabiliak
dira kanpo-zorrak,
haien baliabide
naturalak eta laborantza
esportaziora bideratzera
behartzeko”**

Nicolas Sersiron

Gaur egun, multinazionalak botere ikaragarria dutela dio, eta horrela bai-
zik ulertu daitekeela karbono-bonbe-
kin jarraitzeko postura: "Daukaten fi-
nantza-boterea dela eta, erosi ditzakete
hautetsiak, legedia beraien alde bidera-
tu dezakete; aberastuko dituen politika
bat planteatu dezakete, beti gizateria-
ren eta naturaren kaltetan". COP15 kli-
maren goi-bileran finkatu helburua ez
da beteko karbono-bonbak eraikiz gero
-1,5 edo 2 graduko berotze orokorra-
Duela egun zenbait jakin dugu COP27
goi-bileraren babesle nagusienetarikoa
izanen dela Coca-Cola: multinazionalai
botere gehiegi uzten zaie, eta horrela
ez diogu buelta emanen klima larrial-
diari. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com



Joxe Mari Muñoa

KATEBEGI BAT KATEAN

“

INOIZ EZ DUZU EHUNEKO EHUN LORTUKO ZUK NAHIKO ZENUKEEN HORI

”

Eusko Ikaskuntzako buru izan zen, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Kanpo Harremanetarako ordezkari, ingeniari, gerrako haurra ez izanagatik ere erbestean hazi eta bizia, Paris-Madril-Donostia bidea egin. Hizketan hasi eta Donostian lehen ikastola hura sortu zuen Migel Muñoaren biloba dela esan digu. Ehun urte egin dugu atzera, oraingo egunera heldu garen arte.



MIEL A. ELUSTONDO



ZALDI ERO

Gerrako haurra zara zu ere?

Ez, ni 1942an jaio nintzen. Amatxo, Magdalena Ganuza, 1936ko irailean erbeste-ratu zen, Mola jeneralaren tropek Beho-biako muga itxi aurretik; Saran babestu zen amatxo, osaba baten etxean. Aitatxo, berriz, Markos Muñoa, bere aitarekin eta osaba Migelekin bizi zen. Migel, Donostiako lehen ikastola hura egin zuena duzu. Juan Muñoak Los Angeles ikastetxea egin zuen Donostian, eta Bidanian, berriz, portzelana fabrika, bidanitarrek baitziren muñoatarrak. Gero, Puente izeneko batek, Falangeko arduradunak, bereganatu zuen hura dena. Historia luzea da... Denbora daukazu?

Sinistun gogorrek, horratik!

Oso elizkoiak, kristauak... aita santua baino kristauagoak! Bi seme izan zituzten, gure aitona Juan, eta osaba Migel, ikastolen sortzailea. Euskaldunak ez ezik, euskararen aldeko sutsuak hala Juan nola Migel, Eusko Ikaskuntzaren fundatzaileetakoak izan ziren biak, eta, bestalde, ideologiaz kontserbadoreak izanagatik ere, aurrerazaleak. Esate baterako, kooperatiba bat sortu zuten Bidanian, baserrietako esnea batzeko eta saldu ahal izateko. Kooperatiba hori, gero, Gurelesa izan zen. Etxe bat osoa utzi zioten Gurelesari Bidanian, errenta sinboliko bat jarrita, urtean zentimo bat

edo halakoren bat. Haiei zor zaie Bidanian portzelana fabrika ireki izana, bertakoei lana emateko asmotan, ez zezaten egin behar izan beraiek egin behar izan zutena: Argentinara alde egin bizimodu hobe bila.

Kontserbadoreak zirela esan duzu.

Egia esan, aitona Juan ez nuen ezagutu. Bederatzi hilabete nituela hil zen. Argazkitan beti ikusi dut lepoko gogorra jantzita, gizon zuzena zela ageri du, ez zuen eguneroko meza huts egingo, ezta brebiarioa ere. Bi anaiak ere kristau gogorrek zirela badakit, eta hango eta hemengo apaiz, elizgizon eta gotzain guz-



Joxe Mari Muñoa Ganuza

PAUE, 1942



Donostiako lehen ikastolaren eragile Migel Muñoaren oinordeetakoa da. Gerrak gurasoak erbesteturik jaio zen frantziar. Donibane Lohizunen eta Parisen hazi eta bizi izan zen, eta ingeniari lanean jardun zuen erbestean, 1983an Euskal Herrira itzuli zen arte. Eusko Jaurlaritzan, Lehendakariaren Kanpo Harremanetarako ordezkari izan zen hemezortzi urtez, eta Eusko Ikaskuntzako buru, berriz, hiru urte eta erdiz. Zoriontsu izan dela dio, eta halaxe dela oraindik.

tiak ezagutzen zituztela ere bai. Oso laguna zuten, berriz, oso-oso laguna ere, Mateo Mujika gotzaina, gure aitona-amonen Bidaniako jauretxean igarotzen baitzituen udako asteak. Horretan, gerra etorri zen.

1936ko Espainiako Gerra Zibila, alegia.

Altxamendua. Horixe da hitza, estatu kolpea, argi eta garbi, faxistek eta naziek sostengatua... Eta altxamendua etorri zenean, aitona-amonak Bidanian, udan, eta uste dut zer egin ez zekitela egon zirela. Batetik, Errepublikak, gorriak eta hau eta hura, eta, bestetik, Kristoren gurutzada... Irailaren 13an Donostia erori eta tropak Bidaniara iritsi ziren, handik Azpeitira joateko. Badakigu ofizialak jauretxean egon zirela lotan. Gogo onez hartu ote zituzten? Ez dakit. Behartuta hartu zituzten? Baliteke. Tropak etorri, joan, eta hurrengo egunean, errekeak azaldu ziren Bidanian, eta kartzelara sartu zituzten bi anaiak, Juan eta Migel. Akusazioa? EAJren sinpatizanteak zirela, alderdi hartako kide zirela leporatu zieten – nahiz gezurra izan –, eta, bestalde, euskal hizkuntzaren maitale zirela. Kursaalera eramanean zituzten, kartzelara, isuna jarri zieten: bi anaiei oraingo eguneko 30 milioi euroren balioa, eta gure amari, berriz, bi milioi eurokoa, gutxi gorabehera. Amak, bai, EAJren karneta zeukan: Magdalena – baina Malen –, Ganuza Lardizabal zen; bere aitona, Ignazio Lardizabal Altuna, GBBko lehen presidentea izan zen.

Eta kartzelatik irten eta zer bizimodu egin zuen familiak?

Donibane Lohizunera joan ziren zuzenean. Gure aita Markos eta bere anaia, osaba Jesus, Donibanera joan ziren, eta hantxe ezagutu zuten elkar gure gurasoek. 1937ko urriaren 2an ezkondu ziren, Buglosen (Frantzia), Akize ondoko herri txikian. Monsinore [Clement] Mathieu zen Akizeko gotzain, hazpandarra, oso euskaltzalea, eta errefuxiatuak gogotik babestu zituena, Frantzia osoan ere, harremanak baitzituen herrialdeko kardinal eta gotzainekin. Gure gurasoek diru-ara-

zorik ez zuten, Argentinan nahi beste ondasun zeukaten-eta. Hemengo aberastasunak konfiskatu zizkieten, baina, gero, berreskuratu ahal izan zuten, auzitegien bitartez. Ez garaiz, hala ere: aitona Juanek, adibidez, hil eta bi urtera berreskuratu zituen bere jabetzak.

Berreskuratu zueneko, hila zen?

Bai, bada. Juan Muñoa Pagadizabal 1943an hil zen. Haren anaia Migel, berriz, 1953an... Gure gurasoei dagokienez, ezkondu eta Donibanen jarri ziren bizitzen, eta hantxe jaio ziren nire anai-arrebak, bata 1938an eta 1939an beste. Eta, orduan, Bigarren Mundu Gerra, eta Donibane [Lohizune] zona okupatua! Errefuxiatu euskaldunentzat hura ez zen toki segurua eta, hortaz, zona libreria jo zuen gure familiak, Pauera, eta hantxe jaio nintzen ni 1942an. Bi familia ginen hala ere, bi Muñoa Ganuza, aita eta osaba bi ahizparekin ezkondu baitziren. Pauen izan ginen gerra bukatu arte. Orduan, berriz ere Donibanera egin genuen. Gure etxean konbentzitutak zeuden aliatuek Mundu Gerra irabazi eta gero, Francok ere laster alde egin beharko zuela, nazi eta faxistek jarri baitzuten boterean. Bitartean, gu, anai-arrebok, Donibanen ikasten hasi ginen, ustez aldi labur bateko kontua izango zela. Nik, esaterako, etxean jardun nuen ikasten, hemengo andereño batekin: Julia Esnal zuen izena. Etxe eder batean bizi ginen, ondo ginen...

Francori agintea kenduko ziotela pentsatuz joan zitzaizkion jendeari urteak bata bestearen ondotik.

1952an bertan aita garbi ikusi zuen Franco puska baterako zegoela. Bitartean, bizi egin behar, seme-alabak ziren lehenengo gauza, gure ikasketak. Ordurako, aita txok ideia bat izan zuen: aitonak Bidanian egin zuena –portzelana fabrika, alegia–, Hendaian egitea pentsatu zuen, fabrika bat sortzea errefuxiatuei eta Irungo jendeari lana emateko. Eta egin zuen, 1950ean: Elkar zuen izena. Fabrika handi bat, berrehun-hirurehun langilerentzat. Garai hartako-edo, Francok kendutakoa berreskuratua zuten, eta artean Argentinan hainbat lur-hektarea eta ondasun



zituzten. Baina, orduan, Peron heldu zen Argentinan boterera, eta konfiskatu zizkien ondasun guztiak gure etxeko eta senideei. Horrekin bateratsu, hemen, Hendaiaiko fabrikak hondoa jo zuen.

Hori ere bai? Kito Argentina, kito Hendaiaiko fabrika...

Baliteke gure etxekoek eskarmentu handirik ez izatea industrian, eta, denak har, eskarmenturik ez Frantzian. Ezin izan zioten fabrikari eutsi: diru-iturri guztiak moztu zizkieten, diru-bermeak galdu zituzten –beren etxe eta gainerakoak–, pikutara Hendaiaiko fabrika, eta pikutara Argentinako ondasunak, Peronen eskuetan gelditu baitziren. Aitatxo ezer ere gabe gelditu zen. Elkar 1950ean inauguratu zen, eta 1957an jada ez zegoen fabrikarik.

Ezer gabe gelditu zineten?

Ezer ere gabe. Gurasoen kezkarik handiena beti da seme-alabak aurrera ateratzea, baina egoera hartan guretzat ez zen erraza. Hala ere, esan dudanez, gure familiak gerra aurretik apaiz eta kongregazio guztiekin harremanak izanak zituen, eta ondorioz, nire anaiak Paris ondoko jesuiten ikastetxe batean amaitu ahal izan zituen ikasketak: hango ingeniari-tza eskolarik handienez sartu zen, Eskola Politeknikoan, Napoleonek sortutakoan. Nik Donibaneko Saint-Marie eta Baionako Saint-Bernard ikastetxeetan egin nituen ikasketak. Saint-Bernarden, barnetegian, baina ordaindu gabe.

Zer esan nahi duzu?

Gerra aurretik, aitona Juanek La Sallekoekin batera egin zuen Los Angeles ikastetxea Donostian, eta gure familia lasalle-tarrekin harremanetan jarri eta, Baionan Saint-Bernard ikastetxea zeukatenez, haraxe joan nintzen, hutsean. Gero, nik ere ingeniari-tza egin nuen, baina Grenoblen, eta Parisen hasi nintzen lanean 1965ean, eta hantxe ezagutu nuen emaztea, Brigitte. 1971n ezkondu ginen, aitatxo hil zen urte berean. Aitatxo San Sebastian egunean hil zen, eta gu maiatzean ezkondu ginen. Parisen egin nuen lan, harik eta 1974an, Madrilera joan ginen arte.

1983an etxera itzuli zinen, ezagutzen dizugun etaparik ezagunena hasi zenuen...

Hiru aro bereizten ditut etorrera horretan. Lehenengoa, Euskal Herrira etortzea. 3 eta 11 urte arteko lau seme-alabekin etorri ginen. Uztailaren bukaeran jakin nuen honantz etorriko ginela, eta lehenengo gauza izan zen haurrak eskolatzea. Ikastolaren batean saiatu ginen, baina seme-alabek ez zekiten euskaraz eta ez genuen lortu. Lehengusuekin hitz egin, eta zenbait ikastetxe aholkatu zizkiguten. Joan ginen haietako batera, erakutsi zizkiguten instalazioak, ikasleen emaitzak, eta hau eta hura. Zoragarria. Hitz ederrak nahi beste. Horretan, galdera egin nion ikastetxeko berri ematen ari zitzaigunari: “Arazo bat dugu: gure seme-alabek ez dakite euskaraz. Ni beti batetik bestera



EUSKO IKASKUNTZA

“Eusko Ikaskuntza Euskadiko faroa izan zen garai batean. Unibertsitaterik ez zegoen garaian –Deustukoa baizik ez–, hutsunea bete zuen. Euskal Herriko jende argi eta ikasienak Eusko Ikaskuntzara jotzen zuen bere lana osatzera. Bokazio horixe izan zuen hasieran Eusko Ikaskuntzak. 1932an ere, autonomia estatutua idatzi behar izan zenean, Eusko Ikaskuntzari eskatu zioten lan hori. Ni sartu nintzenean, bestelakoa zen egoera, bestelakoa garaia”.

AHAL DENEAN, AHAL DENA

“Ahal duzuna egiten duzu, eta egindakoa da egin nahi duzun horretara gehien gerturatzen dena. Inoiz ez duzu zeharo eta guztiz lortuko zuk nahiko zenukeen hori. Egia esateko, pozik ibili naiz, zortea izan dut bai Bruselako lanean eta bai hemengoan. Hamabost urte joan dira erretiroa hartu nuenetik, eta oraindik harremanak ditut zenbait lankiderekin”.

Azken hitza

MEMORIA

“Askori esan diet beren familiaren historia idatzi behar dutela. Ez, nahitaez, ezer publikatzeko, baina familiarentzat bai, behintzat. Azkenean, batari eta besteari hainbestetan esan ondoren, neu hasi nintzen geure familiaren historia idazten. Ez dut sekreturik idatzi, ez dut lan komertzialik idatzi ere. Gure familia nondik datorren, non bizi izan den idatzi dut, argazkiak bildu ditut... Baina oraindik ez diet seme-alabei erakutsi” gaude, gure loreetan sasi / Irrintzi, oihu, ele ta ulu, marmario ta garrasi. / Haize enbata, brisa galerna...”.

ibili naiz lanean, emaztea frantsesa dut, Borgoinakoa...". Eta berak: "Hori ez da arazoa, hemengo ikasleek euskara ikasten dute, baina juxtu-juxtukoa, zer edo zer jakiteko, besterik ez".

"Juxtu-juxtukoa, zer edo zer jakiteko"? Hori esan zizun?

Bai. Eta gehiago ere esan zidan: "Ikasleek urtero gauza bera ikasten dute, lasai, euskara ez dute oztopo izango". Nik, orduan: "Hortaz, batxilergoa bukatzean ez dira euskaraz hitz egiteko gai izango, ezta?". "Ez, bada!". "Ikaragarri estimatzen dizut horren argi eta garbi adieraztea, zeren gu Madriletik hona etorri gara gure seme-alabek euskaraz ondo ikas dezaten, euskaraz bizi daitezen". Harrituta gelditu zen. Gehiago ere esan nion: "Gure seme-alabek astean lau zuluera-ordu izango balituzte, ikasketak bukatzean zuluera hitz egiteko gai izatea exijituko nizuke. Eskerrik asko, eta agur!". Halaxe izan zen.

Itzulerari buruz ari ginela, hiru aro bereizten dituzula esan duzu...

Lehena, esan dut, hona etortzea, seme-alabek euskaraz ikastea. Bigarrena, Eusko Jaurlaritzako lana, Lehendakariaren Kanpo Harremanetarako ordezkari. Ez nekien



zer egin ahalko nuen, baina banekien ahal nuen guztia egingo nuela. Gehiegi esatea da, baina nire herriaren alde zer edo zer egiten nuela sentitzen nuen. Lehena izan nintzen Europar Batasuneko erakunde batean euskaraz hitz egiten. Hamazortzi urte egon nintzen Jaurlaritzako lanean, gustura. Beti ez nengoen ados, baina zorakeria da pentsatzea ezer egiteko erabat ados egon behar duzula.

Hirugarren etapa Eusko Ikaskuntzako lehendakari izan zinen garaikoa dugu, ezta?

Bai, bada. Jubilatuta ni ordurako, bi lagun etorri zitzaizkidan, Eusko Ikaskuntzako lehendakaritza hartzeko eskatuz. "Ezin egokiagoa zara", esan zidaten, eta nik, orduan: "Esan ezazue garbi: ez duzue beste inor, ezta? Kar, kar...". Ilusio handiak eta desilusio handiak izan nituen Eusko Ikaskuntzan. Ilusio handia nuen, gure aitona eta haren anaiak sortutako erakundea zelako. Lehendakaritza eskaini zidatenean, Eusko Ikaskuntza errealitate bat zen, baina baita mito bat ere! Ilusio handiz sartu nintzen Eusko Ikaskuntzan, momentu txar batean.

Zergatik zen momentu txarra?

2008a zelako, krisi ekonomikoa etorri zen garaia. Eusko Ikaskuntza ikaragarri hazi zen aurreko lau urtean. Bateko *Euskomedia*, besteko fundazio... 60 langile zituen eta, bestalde, dirulaguntzei esker bizi zen. Ez zen posible. Krisia etorri zen, eta zer edo zer pentsatu beharra. Jabetu nintzen herria ez zegoea interesatua. Hainbat kidek, berriz, soldatapekoek batez ere, bazuten interesa: beren soldata, besteak beste. Erakundeei dagokienez, Espainiako gobernuarena zen dirulaguntza han-

diena! Jaurlaritzak eta hiru diputazioek ematen zutena baino handiagoa! Gogoeta sakona bultzatu nahi izan nuen, eta neure burua laguntzailez inguratu behar nuela pentsatu nuen. Eta, nire ustez, Euskal Herrian ziren lauzpabost pertsona argitsuek inguratu nintzen: Pako Garmendia, Juan Ramon Gebara, Josu Jon Imaz, Juanjo Alvarez eta Jose Luis de la Cuesta. Hilean behin biltzen ginen, zer egin pentsatzeko. Oso aberasgarria, ilusionagarria...

Zein ziren gogoeta sakon horren zioak?

Donostiako egoitzan 26 langile ziren. Nik, gogoeta bideratzeko, beste pertsona bat hartu nuen, emakumezkoa, balio handikoa. Baina gerra zikina sortu zen. Ez zioten bizitzen utzi. Minbizia etorri zitzaion. Eta, gero, bota egin ninduten ni. Lau urte egon behar nuen, baina hiru urte eta erdi egon nintzen: batzar nagusi bat egin zuten, eta bota egin ninduten. Gauzak polit esan nahi direnean ez da horrela esaten, baina gordin esaten dizut zuri hemen: bota egin ninduten. Pena handiena dut ezin izan genuela gogoeta hura egin. Eta, bestalde, emakume hari gure zuzendaritza batzordean egin ziotena barkaezina da. Ez dauka izenik. 2008an sartu zinen erakundean, sartu zintuzten, esan duzunez.

Euskal Herrian zazpi unibertsitate ere bagenituen ordurako! Orduan, zer lan egin genezakeen Eusko Ikaskuntzan, unibertsitateek egiten ez zutena? Jaurlaritza ere hortxe zen, lanean. Guk zer egin behar genuen, aholkularitza eskaini besterik? Eusko Ikaskuntza estatu kontseilu bat izan zitekeen, euskal estatuaren kontseilua, jakintsuek hartu beharko zuketan parte kontseilu horretan, ez asko dakitenek, hala ere, autoritate moral eta soziala dutenek baizik, lanik ez egiteko.

Lanik ez egiteko? Zertarako, orduan?

Gehienik txosten motzak, eta sakonak, egiteko. Euskal Herriak zer bide hartu behar duen gogoetatu eta planak egin ahal izateko. Munduko lau ertzetan, Japonian, Txinan eta gainerako bazterretan, plan horiek gauzatzen nork lagundu dezakeen pentsatzeko eta estrategiak diseinatzeko... Eusko Ikaskuntzak ez zukeen aginduko herri honek zer egin behar duen, baina proposatu bai. Gaurko egunean Eusko Ikaskuntza ikusi eta galdera egiten diot neure buruari: "Non da Eusko Ikaskuntza?". Eta zuk, noiz entzun duzu azkena Eusko Ikaskuntzaren gainean hitz egiten? ●





**EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI**

**info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com**



Iritziak

Guretzako kostuak, kapitalarentzako irabazia



ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Bizitza kostuak goranzko joera hartu duela esatea gauza jakina da. Elikagaien prezioen igoera herritar xumeengan eragin handia izaten ari da; gasolinaren prezioak ere gora eta gora; elektrizitate eta gasaren kostuak ongizaterako oinarritzakoak diren zereginak, hala nola sukaldean aritzea, etxea gutxieneko ongizate termikoan mantentzea, garbigailua erabiltzea, pribilegiatuentzako kontu bihurtzen ari dira. Etxebizitza duina izateko eskubidea, asetzen ez den eskakizun zaharra da. Azpimarratu behar da bizitza kostuaren igoera honek, inflazioaren bitartez neurtua, diru-sarrera murriztak dituztenak bortitza kolpatzen dituela.

Aurreikuspen ekonomikoek diote inflazioa moteltzen joango dela. Bitartean, inflazio hazkunde honekin batera, sektore askotan enpresen mozkinak nabarmen hazi dira. Horrela azpimarratu du Europako Banku Zentralak: enpresa askok euren prezioak soldata nominalen igoeratik harago igo dituztela, eta, kasu askotan, baita energiaren kostuen igoeratik harago ere. Laburbilduz, hein handi batean enpresa-irabaziak izan direla bizitza kostu hazkorraren erantzuleak.

Bi digitutako inflazioa langileen aurkako enegarren kolpea izan da. Atzeraldi Handitik lan hitzarmen kolektiboetan sinatutako soldata hazkundeak, orokorrean eskasak izan dira, eta sarritan, soldata murrizketei buruz hitz egin behar gogonuke, termino errealean neurtuta.

OCDEk jakinarazi du bost langiletik batek buruko nahasmendua, depresioa edo antsietatea duela

Enpresek, lansariak ez handitzeko “krisiaren aitzakia” erabili izan dute beti, bereziki 2008tik aurrera, hainbat lan hitzarmen kolektibo urteetan berriro gabe mantenduz. Honi gehitu behar dio 2002tik aurrera Moneta Bakarrak ez duela lagundu, langileek urte horretako eros ahalmen bera daukatelako, 20 urte geroago.

Dena den, guztia ez da diru kontua. Langileek pairatzen duten lan karga handitu egin da, enpresen onurarako. Lan erritmo hazkorra, teknologiaren bitartez enpresa kontrola sakona, agintzen diren zereginetan arreta oso handia exijitzea, lanpostuetan mugikortasun handia, enpresek emandako prestakuntza eskasa... lanaren kostu psikologikoa modu esponontzialean biderkatu da, bizitza maila duin bat bermatzen ez duen soldata eskas baten truke. OCDEk

jakinarazi du bost langiletik batek buruko nahasmendua, depresioa edo antsietatea duela eta gaur egun laneko segurtasunik eza eta presioa areagotzeak osasun mentaleko arazoak areagotzen dituela.

Bizitza kostuaren hazkundea eta osasun mentalaren okertzea funtzionamendu kapitalistaren ondorio zuzenak dira, enpresa askoren urteko balantzean positiboki eragiten dutenak. Okerrena da egoera hau normalizatu dela, pairatzen dugun errealismo kapitalista honetan errazagoa baita munduaren amaiera imajinatzea kapitalismoaren amaiera baino. Badirudi etsipena dela partida irabazten ari dena. Hala da?


Erresuma Batuan *Enough is enough* kanpaina martxan jarri dute eragile sozialek eta sindikatuak, krisiari aurre egiteko bost eskaera eginez: benetako soldata igoera, energia faktura murriztea, elikadura pobreziarekin bukatzea, etxebizitza duina guztientzat bermatzea eta aberatsak zergapetzea. Ez da proposamen iraultzailea izango, baina hasiera bat izan daiteke. Honi gehitzen badizkiogu sindikalismo eraldatzailearen hedapenak eta soldata murrizketarik gabeko lan jardunaldiaren murrizketak, aurreko paragrafoetan irudikatutako testuinguru iluna argitzeko aukera emango luke.

Ez dugu ahaztu behar kapitalaren eta lanaren arteko gatazkari buruz hitz egin ari garela. Kapitala eta bizitzaren arteko gatazka. ●

Heziketa libre ez politikoa?



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Ez dut ezer berria aipatzen heziketak inplikazio sozial handia duela esaten baldin badut, ezta are aitoriturik ere heziketa dela gertakari sozial nagusia. Gizarte edo kultura baten balore, jokabide, sinesmen, ohitura, arau eta abarren transmisioa eta introiektzioa baino ez baldin bada, nola ulertuko dugu heziketa gizarte horren konfiguraziotik kanpo?

Horregatik dira heziketa-prozesu guztiak ekintza politiko, etiko, eta ideologikoak, bere horretan. Eta arrazoi beragatik da ezinezkoa hezitzaile bezala erabaki neutroak hartu ahal izatea, hezitze modua aukeratzerakoan, edukiak eta helburuak zehaztean, metodologia hautatzean, edota orohar, eskola antolatzean.

Heziketari buruz dugun kontzepzioetik bertatik ari gara gizartearen eragiten, eskolak eraldaketaren alde edo *status quo*-aren alde egin behar duen erabaki behar izaten baitugu, hasieratik bertatik. Oinarritzko hautu horren arabera sailkatzen ditugu historian zehar egituratu izan diren eskola-erakunde mota ugariak, mundua eta pertsona ulertzeko eta hauen aurrean kokatzeko beti egon diren modu politiko diferente horien isla huts gisa.

Oro har, haurren zigorra, manipulazioa eta zapalkuntza oinarri dituen be-

girada da oraindik ere, paradigma pedagogiko nagusia. Egun, egia da, arraroa da irakasle batek parametro horiek dituela argiki aitortzea, bere burua autoritarioztat jotzea, edo irakasle autoritarioaren rola esplizituki defendatzea, baina ez rol horretan kokatzen ez garelako, baizik eta besterik gabe, oso errotuta eta naturalizatuta dagoelako gure baitan, eskolan funtzionatzeko modu hori: nola azaldu bestela, komunera joateko baimena eskatu beharra, hitzaren eta mugimenduaren gaineko gure kontrol erabatekoa, erabakimen erabat hierarkikoa, eta abar, eta abar, eta abar. Foucaltek ongi ohartarazi zigun bezala, antza handiegia du eskolak, oraindik, espetxearekin.

Beste begirada, askatasuna helburu, pertsonen garapen osoa bilatzen duena litzateke, zeinaren arabera heziketa den gizarte eraldaketarako dagoen kasik aukera bakarra. Honetan, dena den, askatasunaz egin ohi den irurketak okerrean egon daiteke arriskua, askatasuna ez delako hemen eta orain gauza berezkoa edo naturala, askapen prozesu baten bitartez konkistatu beharrekoa baizik, eta hau horrela ez balitz bezala jokatzeko dugarako, behar baino maizago.

Egiturazko zapalkuntza(k) horrenbeste direnean, eta hain ezkatututa dauden garaioan bereziki, emantzipazioa

da askatasunaren baldintza eta giltza. Horregatik, oso garrantzitsua da haurren alfabetazio politikoa, haurrak ez daudelako, haur izate hutsagatik, sistema soziopolitiko boteretsu honen eraginetik salbu, kontrakoa baizik. Eragingarriagoak dira, eta hain zuzen ere horregatik, diskurtso hegemonikoen aurrean zaurgarriago.

Libre(ago)ki hezi nahi dugun hezitzaileon funtzioen artean, aske izatea eragozten diguten jarrerak, diskurtsoak, praktikak eta egitura politikoak zein diren eta non dauden detektatzeko laguntza eskaintzea dago. Nekez izendatu ahalgo baita libre gisa, errealtate soziala auzitan jarri gabe eta bidegabekeriaren aurrean jarrera irmoa hartu gabe, zapalkuntzari ez ikusiarena egiten dion heziketa. Edo tira, nondik begiratzen den. Libre(a) akaso bai, baina indarreko sistemaren ideologiarentzat. Bidea zabalik.

Beharbada ezin da, beharbada ezin dugu. Baina debekatua dugulako, edo horrela jokatzeko hartuko genituzkeen arriskuengatik, ezta? Ez dezagun, askatasunaren izenean edo askatasunari zor diogun errespetuaren aitzakian, gainera, heziketa despolitizatzearen aldeko aldarri lotsagabea egin.

A, eta bide batez: zapalkuntzarik ezin aipatu baldin bada, zapalduta gauden seinale, ezta? ●

Legea mirariaren miran



**MIKEL BASABE
KORTABARRIA**
IRAKASLEA

2010ean, Celaa sailburu sozialistak 3L ereduaren "esperimentazio-markoa" abiarazi zuen. Hezkuntza lege berriak bezala, hark ere ingelesa eta gaztelania irakaskuntza-hizkuntza bihurtu zituen: ikasgai banatako edukiak hizkuntza horietan eman behar ziren, eman beharko dira.

2010 hartan, Jaurilaritzak urte birik behin egiten duen Ebaluazio Diagnostikoak (ED) honako emaitza hauek eman zituen 2. DBHko ikasleen euskara-ezagutzan:

- Hasierako mailan (apalenean), ikasleen % 33,6.
- Tarteko mailan, ikasleen %42,4.
- Goiko mailan, ikasleen %24,1.

Ez lehenago, ez ondoren, inoiz ez da hain ehuneko alturik izan goi mailako ezagutzako ikasleen artean; inoiz ez hain ehuneko bajurik maila apalenean artean.

Publikaturiko azken ED 2019koa da: aurtengo martxoan. Horretan, ikasleen %15,6 dago maila altuenean. Bederratziz urtean, ia herena gutxiago. Aurreko txostenetan ez bezala, 2019koan ez dago ikasleen euskararen ezagutza mailaka islatzen duen taularik, baina 69. orrialdean hauxe dio:

"Euskarara erakartzen ez den kolektibo garrantzitsu bat dagoela azpimarratu behar da (%30,2 Lehen Hezkuntzan eta %47,9 DBHn)".

2017an, DBHko ikasleen %45,6 ziren euskararen ezagutza-maila bajeanean

zeuden ikasleak. Gogoratu: 2010ean, % 33,6.

Datu gehiago ere ematen ditu 2019ko txostenak: "DBHn, elebitasunaren helburua ez da lortu B publikoaren %83n, itunpeko Bren % 64,3n. Baina D ereduak ere ez du bermatzen elebitasunaren helburu hori lortzea, ez baita bete D publikoaren %49,1en eta itunpeko Dren % 57,8n". Datu ofizialak horiexek badira ere, hezkuntza lege berriak eredu bakararra planteatzen du, hain justu gaur egungo B ereduaren parekoa. Nahiz eta euskarari dagokionez emaitzak negargarriak izan.

Azkenik, 2019ko EDren 72. orrialdeko hau: "DBHko 2. mailan puntuazioak behera egiten du arian-arian ED10etik, eta ED19an lortutako emaitzak edizio guztietako txikiak dira bi sareetan (244 D publikoan eta 254 itunpeko Dn). Aurreko edizioarekin alderatuta, 10 puntuko galera gertatu da D publikoan, eta 11 puntukoa itunpeko Dn". Urte biko, 10 eta 11 puntuko galera.

2010 ez hain aspaldiko hartan, eredu eleanitza martxan jarri zuten hartan, euskarazko hizkuntza-komunikazioaren emaitza orokorra 258 zen. 2019an, 241. Hamazazpi puntu gutxiago. Gaztelaniaz 250etik 251ra pasa da.

Datuok ikusita, larrua behar da hezkuntza legeko eredu bakararra saltzeko, eta larrua beharko da datuoi bizkarra eman eta horren aldeko botoa emateko... ●

Alaska



CASTILLO SUAREZ
IDAZLEA

Haurrek zinetenean Alaskaraino joaten zineten, oinez. Hoteleko parkinga pasako jendez beteta egoten zen. Zerbitzarietako bat mutil ilegorri bat zen. Aitak beti esaten zizuen gauza bera: han dago muga; garai batean, kate batek bereizten zituen probintziak, horregatik deitzen zaio paraje honi *Katealde*. Orain autobide bazterretik ikusten da abandonatutako hotela. Gau batez neoizko argiak piztuta zeudela ikusi zenuen, eta balizko erosleren bati erakusten egongo zirela pentsatu zenuen. Askotan egiten

duzu amets Alaskan zaudela mutil ilegorriarekin hizketan. Baina zuk ez dituzu ametsak idazten. Ametsek gehienetan autoan harrapatzen zaituzte, idazteko tresnarik gabe, atzerako ispiluari begira, basurde bat agertzeko zain. Maite dituzu autobideak eta autopistak, eta ez horrenbeste bigarren mailako errepideak, poliki zoazenean gehiegi pentsatzeko arriskua dagoelako, oroitzapenak nahi gabe gogora ekartzeko; eta, ongi argi dakizunez, ezin dugu ezer egin gogoratu nahi ez duguna ahazteko. ●

Nord Stream



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Pablo Iglesiasek, Inna Afinogenovak eta beste batzuek aski argi esan dute estatubatuarrak –edo haien aliatuaren bat– direla Nord Stream gasbidearen suntsiketaren arduradunak. Afinogenovak bi argudio nagusi ematen ditu “erruduna Errusia dela defenditzen duten analisten” aurka: lehena, Errusiak segitu nahi badu Europari txantajea egiten gasarekin, gasbidea martxa onean behar duela, txorrotta irekitzen eta ixten segitu ahal izateko. Bigarrena, Errusia Ukrainiako gerran gero eta okerragoa badabil gaitasun militarren faltaz, nola eduki lezake gaitasunik halako operazio bat egiteko NATOk erabat kontrolatzen duen Baltiko itsasoan?

Nik, apal-apal, hirugarren argudio bat gehituko nuke: gasbidea suntsitzeari buruz gure eskuetara iritsi ohi den prentsak –euskal prentsak ere barne– hartu duen jarrera: gasbidea suntsitzeari buruz, berri laburrak, analisirik apenas, egiletzari buruzko zalantzak... eta, aldiz, Errusiak anexionatu dituen lurraldeen arazoa fokupera ekartzea –berri luzeak, analisi aberatsak, baieztapen biribilak–.

Iglesiasek, bere aldetik, CIAko aholkularia izan zen Jim Rickards delako

Desastre ekologiko bat; non ez gaituzten konbentzitzen gerra ekologikoa dela edo izan daitekeela, nuklearra berdea dela konbentzitu nahi gaituzten moduan

batek Twitterren idatzitakoa aipatzen zuen: “Ez dakit nork suntsitu dituen gasbideak, baina badakit misterio baten erantzuna aurkitzeko motibazioak bilatu behar direla. Errusiak ez dauka bakar bat ere, gasaren jarioa nahi duenean mozten ahal duelako. AEBk asko dauzka: Putini errua botatzea, gerra areagotzea, Europar Batasuna AEBen mendeko bihurtzea...”.

Diotenez, gasbidetik isuriko den gasak ez du itsasoa kutsatuko –gasa ur sakonetik ur azalera igo eta handik at-

mosferara igaroko delako– baina atmosferan eragingo duen efektua, aldiz, 7,5 milioi tona CO2 isurtzea bezalakoa izango da. Alderaketa hau egiten dute: Espainiako estatuan urtebetez zirkulatzen duten ibilgailu guztiek isurtzen duten CO2 guztia da hori. Desastre ekologiko bat; non ez gaituzten konbentzitzen gerra ekologikoa dela edo izan daitekeela, nuklearra berdea dela konbentzitu nahi gaituzten moduan.

Etsita nago ez naizela sekula ezer ulertzera iritsiko, eta gerraren lehen biktima egia dela; badakit albiste mota hauetan ez dagoela inorekin fio izaterik. Urteek mesfidatia izatera eraman naute, eta bertsio ofiziala ez dut ia inoiz sinesten. Horretaraino, ezer berririk ez. Niretzat berria dena da bertsio ofiziala ezbaian jartzen duen bertsio alternatibo eta sinesgarriak aurkitzeko, eta kontraste horretatik interpretazio “propio” bat lantzeko dauden zailtasunak. Beti dago engainatua izateko arriskua, baina hori bezain kaltegarria da ofizialismoaren ahotsari kasu egitea, horrek ergelkeria- ren atarian uzten baitzaitu.

Kazetaritza ere gerran dago. Gerran segitzen du. ●



“Antzinako gari barietate ekologikoak erabiliz, gure ogia goxoagoa da eta ingurumena errespetatzen du.”

LEIRE BEORLEGI
Okina, IRUNBERRI

ETORKIZUNA EKOLOGIKOA DA aurrera goaz!

cpaen.org
navarraecologica.org

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

UNIÓN EUROPEA
Fondo Europeo Agrario de Desarrollo Rural

CPAEN
NNPEK
EKOLOGIA

ALIMENTOS ECOLÓGICOS
eko-
logikoak
para vivir mejor
DE NAVARRA

Artikulu hauek erosita
ekarpen ekonomikoa
egingo diozu Bilboko
Mbolo Moyo Doole
elkarteari.



Prezioa **10,00 €**

Bidalketa gastuak **5€**. Bidalketa doan
40€-tik gorako erosketetan. Erosketak
BIZUM bidez ordaindu daitezke.

azoka.argia.eus

(+34) 943 37 15 45

DESJABETUEN KLASEA EUROPAN

Ondarerik gabeko herritarrak, **pobreziaren atzaparretan**

Europako jendartearen gehiengoa pobretu egin dela diote azken urteotako datu eta estatistika guztiek. Europako Banku Zentralak eta antzeko erakundeek darabilten politika ekonomikoak zerikusi zuzena du horrekin; eta desberdintasun soziala gehiago handituko da ondare apur baten jabe direnen eta ezer ez dutenen artean, prezioen gorakadak herritarren poltsikoa estutu ahala.

 URKO APAOLAZA AVILA





Herritarren %1aren eta gainerakoen artean arrakala handitzen ari dela sarritan aipatu izan dute aditu eta albistegiek, batez ere azken urteetan. Oxfam erakundeak bere azken txostenean esandakoaren arabera, munduko hamar gizon aberatsenek euren fortuna bikoiztu egin dute Covid-19 garaian, aldiz, %99aren diru-sarrerak gutxitu egin dira. Nobedaderik ez Donostiako Mirakontxako zerumugan. Baina desberdintasun soziala banaketa sinboliko hori baino askoz anitzagoa dela ere badio Oxfamek: generoa, arraza, lurraldea, eta beste faktore batzuk ere kontuan hartu behar direla, alegia.

Europar, eskala sozialaren azpialdean dauden sektore zabaletan ere arrakalak handitzen ari dira –eta gehiago handitu daitezke–, batez ere krisi ekonomikoaren aurrean ondare-erreserba edo aurrezki txiki bat izan dezaketen eta hori ere ez duten herritarren artean. Hala dio, Paris 8 Unibertsitateko iker-

keta batek: adin, lanbide eta klase sozialaren arabera, zaurgarritasun ekonomikoa oso desberdina da, eta diru-sarrerez gain, aldagai garrantzitsuenetakoa ondare baten jabe izatea da. “Familien aurrekontua itotzen ari den inflazioaren aurrean, ondare-erreserbek diferentzia markatuko dute”, ondorioztatu dute ikerketan.

Inflazioa %10era iritsi da eurogunean irailean, Eurostatek dioenez, abuztuan baino zortzi dezimal gehiago. Europako Bankuak interes-tasak igo ditu (ikusi koadroan), langabeziaren kontura kontsumo eskaria gutxitu eta prezioak apalduko direla dioen dogma liberalari jarraiki, eta Europar Batasuneko gobernuak fiskalitatearen auzia mahai gainean dute. Batzuek, energia kostuen gorakadarekin irabazi handiak izaten ari diren energia-enpresak gehiago zergapetu nahi dituzte –Bruselak 140.000 milioi euro bildu nahi ditu horrekin–, edo fortuna handiei kosk egin, *tax the rich* (aberatsak zergapetu) ideiarekin bat eginez... bes-tetzuek kontrakoa egiten duten bitartean. Edo, bestela, aste berean bi gauzak iragartzen dituzte, Liz Truss Erresuma Batuko lehen ministroak bezala.

Europako Banku Zentraleko egoitza nagusia Frankfurten, euroaren 20. urteurrenaren harira argiztatua. Moneta politika gogorra erabiliz herritarren bizkar jarriko du, berriz ere, krisia.

ARGAZKIA: EBZ

Eztabaida eskizofreniko horren atzean, gehienetan ez dago sistema ekonomikoa aldatzeko asmorik, aberatsa aberatsago egiten duen eredu bera urazalean mantentzeko ahalegina baizik. Elon Muskek paparra atera du 2021ean zergatan ordaindu dituen milioika *eurotxorekin*, baina ez du esan bere ondasunaren (315.000 milioi euro) %3 besterik ez dela kopuru hori. Zergak aberatsentzat bai, baina aberats izaten segi dezaten. Dena normal Davoseko begiratokian.

Eta bitartean, desberdintasun soziala eta pobrezia handitzen. Baita gurean ere. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, adibidez, 2008tik bikoiztu egin da pobrezia larrian dauden herritarren portzentajea (%6,1), Idoia Mendia Eusko Jaurlaritzako lehendakariordeak duela egun gutxi V. Gizarteratze Plana aurkezterakoan onartu zuenez. Nafarroan 56.262 lagun daude egoera horretan (%8,6), eta Ipar Euskal Herrian ere milaka dira pobrezia mailaren azpitik daudenak, 17.000 inguru, Euskal Elkargoko Prekarietatearen Behatokiaren arabera. Ez da azitia izan behar jakiteko hipoteken eta erosketa saskiaren garestitze alimalekoak zulo horretara jausiko dituela beste milaka, patu horretatik salbatzeko aurrezki, ondare edo *koltxoi* nahikorik ez dutelako.

ELGAren esanetan, pertsona bat pobrea da, ez denean gai bere ondare edo aktibo likidoarekin pobreziaren langaren gainetik hiru hilabetez irauteko

ONDARE-POBREZIAREN ARRAKALAK

“Ondare desberdintasunak ‘behetik’ begiratzen ditugunean, ikus dezakegu zer eragin duen aurrezkirik ez izateak klase eta adinaren arabera. Datuak zoratze-koak dira”. Hala idatzi du Nicolas Duvoux soziologoak Twitterreko bere kontuan. Paris 8 Unibertsitateko irakaslea da Duvoux eta “*Des classes dépossédées: Pauvreté en patrimoine et vulnérabilité économique*” (Desjabeturiko klaseak, ondare-pobrezia eta zaurgarritasun

ekonomikoa) artikulua idatzi du La Vie des Idées kooperatibaren webgunean, Senmiao Yang unibertsitate bereko ikaslearekin batera. Bertan azaldu dute, herritarren artean diru-sarrerek ez ezik, aurrezki faltak ere desberdintasun handiak sortzen dituela, egoeraren arabera.

Europa mailako galdeketa bat izan dute abiapuntu: Familien Finantza eta Kontsumo Inkesta, 22 herrialdetan egiten dena –azken olatua 2017koa da-. Inkesta hau bakarra da familien ondare eta aurrezkien inguruko datuak biltzen, eta aukera ematen du aberastasun, errenta, klase sozial eta adinaren araberrako konparaketak egiteko.

Thomas Piketty desberdintasun sozialak ikertu dituen ekonomialari frantziar ospetsuak kritika zorrotza egin die halako inkestei, esanez ondare handia dutenen inguruko datuak ez direla fidatze-koak. Pikettyk *Kapitala XXI. mendean* liburuan maisuki azaltzen du aberastasuaren kontzentrazioa nolakoa izan zen XIX. mendetik aurrera, eta nola elite txiki baten eskuetan gelditu zen. Baina Paris 8 Unibertsitateko ikerlariak diote egungo testuinguruan “klase ertainean kokaturik dauden herritarren ondarea” ere oso kontuan hartu behar dela desberdintasun sozialak azaltzeko.

Zenbat iraun pobrezian erori gabe?

	18-34 urte	35-49 urte	50-64 urte
Enpresari txikiak	84 aste (Urtebete eta 9 hilabete)	96 aste (2 urte)	168 aste (3 urte eta 9 hilabete)
Exekutiboak eta goi mailako lanbideak	28 aste (7 hilabete)	52 aste (Urtebete eta hilabete bat)	112 aste (2 urte eta 4 hilabete)
Teknikariak eta erdi mailako lanbideak	22 aste (5 hilabete eta 2 aste)	32 aste (8 hilabete)	34 aste (8 hilabete eta 2 aste)
Enplegatu gaituak	11 aste (2 hilabete eta 3 aste)	19 aste (4 hilabete eta 3 aste)	36 aste (9 hilabete)
Langile gaituak	10 aste (2 hilabete eta 2 aste)	14 aste (3 hilabete eta 2 aste)	36 aste (9 hilabete)
Soldatadun ez-gaituak	5 aste (Hilabete bat eta astebete)	10 aste (2 hilabete eta 2 aste)	22 aste (5 hilabete eta 2 aste)
Langabetuak	4 aste	6 aste (Hilabete bat eta 2 aste)	11 aste (2 hilabete eta 3 aste)

*Grafiko honek adierazten du lanbide eta adin bakoitzak eskura dituen aurrezki edo ondarearekin zenbat iraungo lukeen pobrezian erori gabe. Segurtasun egoera (urdina), erdibideko egoera (horia) eta arrisku egoera (gorria) ageri dira. Iturria: La Vie des Idées

Interes-tasa: haiek igo, zu pobretu

Diruaren merkatuko prezioa, interes-tasa, etengabe ari dira igotzen mundu osoko banku zentralak, baita European ere. Europako Banku Zentralak (EBZ) hainbat urtez dirua kasik doan eman ondoren, %0,50 igo zuen tasa hori uztailaren eta %0,75 irailean, inoizko igoerarik handiena.

Prezioen igoera baten aurrean, soluzioa moneta politika gogor bat izatea dela dioen ortodoxia ekonomikoari eutsi dio EBZk. Baina aditu askoren ustez hori ez da irtenbidea izango. Hasteko, ez duelako jotzen inflazioaren jatorrirra: iaz hasi ziren prezioak goraka -Ukrainako gerra oraindik ez zegoenean-, elektrizitate enpresek merkatu marjinalistaren zirrikituak aprobetxatuta. Eta batez ere, ez da soluzio bat munduko zorra jadanik BPGren %350 delako, Roser Espelt ekonomialariak duela hiru aste orriotan gogorarazi bezala; zor hori kitatzeko diru gehiago ordaindu behar izateak, galbidera eraman ditzake familiak, enpresak eta herrialde osoak. Nazio Batuen Erakundeak berak, azkeneko bilkuran banku zentraleri eskatu die gelditzeko sukar monetarioa, "mundu mailako atzeraldia" eragin dezakeelako.

Baina batzuei hipoteka %37 igoko zaien bitartean, bestetazuei mesede galanta egingo die diruaren garestitzeak: Espainiako Estatuan 14.630 milioi euro igaroko dira bankuen eskuetara Carlos Sánchez Mato ekonomia irakasleak *El Salto*-n azaldu zuenez, "horiek baitira EBZren benetako akziodunak".

SOLDATEN IGOERA "ARRISKU FOKU BAT" DA GOBERNADORE JAUNARENTZAT

EBZk interes-tasak igotzen jarraituko duela jakina da. Baina noraino? Bere buru Christine Lagardek Europako Parlamentuan onartu zuen igoerak ez duela sabairik, eta bileraz bilera joango direla ikusten -hurrengo urriaren 27an dute-, eskaintza eta eskariaren arteko "puntu neutral" batera iritsi arte. Askok dira, ordea, puntu hori ezinezkotzat dutenak, 2008ko krisiaz geroztik di-




Pablo Hernández Cos Espainiako Bankuko gobernadorea Barakaldoko BECen. CEDE

rua "pozoindu" egin dutelako bankuak salbatzeko, Yanis Varoufakis greziar finantza ministro ohiak idatzi moduan. Baina ekonomia agintariek beste kezka batzuk dituzte antza...

Irailaren 29an Espainiako Bankuko Gobernadore Pablo Hernández Cos Barakaldon izan zen, CEDE Espainiako Zuzendarien eta Exekutiboaren Konfederazioak BECen antolatutako ekitaldi batean. Interes-tasak %2,5era igoko direla

iragartzeaz gain, diskurtso beldurgarria eman zuen Hernández Cosek, Felipe VI.a espainiar erregea aurrean zuela. Pozik agertu zen *eskaria* -soldaten igoeraz ari zen- ez delako hainbeste igo, bere usteetan soldata igoerak "arrisku foku bat" baitira inflazioaren espiral batean sartzeko. Gobernadoreak gogorarazi zuen inflazio %9an den bitartean, soldadak %2,5 besterik ez direla igo, "lasaigarria da", erantsi zuen.

Interes-tasak Eurogunean



Grebak eta mobilizazioak soldaten murrizketa eta erosahalten galera salatzeke

Inflazioaren gorakadak eta gobernuen politika ekonomikoek herritarren pobretzea dakartela agerian gelditu ahala, gero eta gehiago dira kalera ateratzen ari direnak. Erresuma Batuan adibidez, sektore ugari borrokan dabil-tza *Cut profits, not pay* (murriztu etekinak, ez soldatak) oihukatuz.

Gurean ere hasi dira lehen mobilizazioak. Baionan, ehunka lagun bildu ziren irailaren 29an “aberas-tasunaren banaketa justua” galde-tzeko, LAB, CGT, FSU eta Solidai-res sindikatuek deituta. Emmanuel Macronen gobernuari egozten dio-te egungo krisia langileei sufriarazi nahia, eta soldatak eta erretretak emendatzea eskatzen dute.

Hego Euskal Herrian, berriz, Espainiako Gobernuak CCOO eta UGTekin hitzartutako soldata pu-blikoen igoerak hautsak harrotu ditu: aurtun %3,5eko igoera adostu dute, 2023an %2,5ekoa eta 2024an %2koa; Kontsumo Prezioen Indize-tik (KPI) oso behera, hortaz. Eusko

Jaurilaritzak, bere aldetik, Madrilen erabakitako igoerak ezarriko di-tuela iragarri du.

Proposamen hori entzun orduko ELA sindikatuak udazkenean greba egiteko aukera mahairatu du; Mixel Lakuntzaren esanetan, “langile pu-blikoek %20ko erosahalmena gal-tzea” esan nahi baike luke horrek.

LABek zuhurtziaz hartu du gre-barako asmoa, baina mobilizazioak iragarri ditu sektore publikoan urriaren 14rako, eta egun horre-tan Iruñean, Donostian, Bilbon eta Gasteizen manifestazioak an-tolatu ditu. Sindikatuak salatu du 2010ean langile publikoei soldatak %5 murriztu zitzaizkienetik ero-sahalmena ez dutela berreskuratu, “are gehiago, oraindik gehiago mu-rriztuko digute”.

Eta bitartean, lerro hauek idaz-teko orduan, Adegipuzkoako en-presarien elkarteko zuzendari Jose Miguel Aierzak “sagrifizioa” eska-tu die langileei, enpleguari egungo mailan eusteko.

“Aktibo likidoa” deitu diote ondare horri: herritar edo familia batek *shock* ekonomiko larri baten aurrean (lana galdu duelako, bikotekideak banandu direlako, istripu bat gertatu delako...) momentuan erabilgarri izango lukee-na. Horregatik, etxebizitzak edo ibil-gailuak ez dituzte kontuan hartu. Hau da, benetan eskura izango lituzketen aurrezkiak dira.

Ekonomia Lankidetzaren eta Garape-nerako Antolakundeak (ELGA) dio pertsona bat pobrea dela ez denean gai bere aktibo likidoarekin pobrezia-aren langaren gainetik hiru hilabe-tez irauteko –langa hori batez bes-teko errentaren %60an kokatu du ELGAK-. Bada, lanbide bakoitzaren arteko diferentziak zein diren era-kusten duen grafiko kezagarria (iku-si 28. orrialdean) plazaratu dute Du-voux eta Yangen: 50 urteko enpresari txiki batek, batez beste, hiru urte eta bederatzi hilabete iraun ahal izan-go lituzke egoera larri baten aurrean bere ondarearekin –beste laguntzarik izan ezean–, pobrezian erori gabe; langabetu batek hiru hilabete eskas. Adinaren arabera ere aldeak nabar-menak dira: 50-64 urteko langile gai-tu batek bederatzi hilabetez eutsiko lioke, eta 18-34 urteko batek, aldiz, bi hilabete eta erdi baino ez.

Zenbateko pobrezia dagoen kalku-latzeko, erakundeek normalean he-rritarren diru-sarrerak edo errentak hartzen dituzte kontuan. Adibidez, Frantziako Estatuan %15 legoke di-ru-pobrezian, eta Espainiakoan %21. Baina ondare-pobrezia askoz larria goa da: %46,7 eta %49,2, hurrenez hu-rren. Ikerketaren arabera, Europako herrialde gehienetan populazioaren erdiak ez luke hiru hilabete iraungo aurreztutakoarekin, ezta Finlandia be-zalako herrialde “aberrats” batekoak ere: %53,6 da pobre ondareari dago-kionez –nahiz eta Finlandiak zerbitzu eta laguntza publiko ugariarekin babes-ten dituen herritarrak–.

Adinen arteko arrakala ere izuga-rria da, amildegi bat irudikatzeraino: Espainiako Estatuan gazteen %70 dago ondare-pobrezian, Frantziako Estatuan %58, Alemanian %65... “Ho-nek erakusten du familiak babes so-zialerako duen garrantzia eta gazteen degradazioa eskutik doazela”, diote La Vie des Idées-eko artikuluan.

Ondorioa garbia da: ezin da pobre-ziaz hitz egin herritarren aurrezki edo



Sindikatuak deituta herritarrak kalera irten ziren irailaren 29an Ipar Euskal Herrian. LAB

Inflazioak %20 gehiago garestitzen die erosketa saskia familia pobreei aberatsei baino

Inflazioak ez dio berdin eragiten diru-sarrera gehiago edo gutxiago duenari, ezta erosketa saskia betetzerakoan ere, kontsumo ohiturak oso desberdinak baitira. Hala ondorioztatu zuen Montrealen (Quebec) egoitza duen IRIS Ikerketa eta Informazio Sozioekonomikoen Institutuak Covid-19aren pandemia garaian egindako ikerketa batean.

Horren arabera, diru-sarrera gutxi duen jendartearen %40ari erosketa saskiaren kostua %20 gehiago

handitu zaio inflazioarekin, %10 aberatsenarekin alderatuta. Prezioz igotzen diren produktuak batez ere oinarritzkoak dira, gehien kontsumitzen direlako, eta familia behartsuenetan inpaktu handiagoa du horrek, beren aurrekontuaren zati handi bat suposatzen duelako. Aldiz, aberatsen kasuan, beharrezkoak ez diren produktu eta zerbitzuetan gastatzen dute euren diru gehiena (entretene-mendua, aisialdia...) eta horietan inflazioa ez da hainbestekoa.

Gainera, lehenengoez kontsumo ohiturak aldatzen dituzten bitartean kalitate eskasagoko produktu merkeagoen bila –eskari horren ondorioz azkarrago garestitzen direnak, bestalde–, bigarrenek ez dute horren beharrik eta betiko kalitate oneko produktuak kontsumitzen dituzte, prezioan aldaketa askorik sumatu gabe. Alegia, arrautzak edo esnea lehen baino askoz karuago dira, baina langostinoak edo urdaiazpiko ibe-rikoa ez hainbeste.

ondare falta kontuan hartu gabe, datuek erakusten baitute zaurgarritasun ekonomikoa askoz sakonagoa dela, esaten dena baino hiru aldiz gehiago izan ere. “Zergatik interesatzen zaidan hau? –dio Duvouxek– Inflazioak behartuko dituelako diru-sarrera gutxi dituzten familiak euren aurrezki urriak erabiltzera. Egiturazko datu hauek premiazko gaurkotasuna dute”.

Euriborraren igoerarekin, eta langabeziaren, gasolinaren zein oinarritzko produktuaren prezioen gorakadarekin, “desjabetuen klasea” dei dezakegun jende multzo horren ezkutuko pobrezia azalera irtengo da berandu baino lehen. Baina bitartean, zaharrak berri Frankfurteko despaxuetan. ●



152 €

gehiago ordaindu beharko ditu hilean 125.000 euroko hipoteka eskatu duen batek, Euriborra %2,2ra igota, *Berria*-k egindako simulazio baten arabera. Kutxanbank-entzat, baina, “ez da tasa handia”, 1999an sortu zenetik askoz gorago ere egon delako indize hori. Etxebizitzen burbuila espekulatiboaren garaiaz ari da banku pribatizatua.

bat

Soziolinguistika aldizkaria

BAT 122/123
**TXILLARDEGI-
HAUSNARTU**
SARIAK (2021)

IZARO ARRUTI, SANDRA PRIETO > Hezkuntza soziolinguistikoa. Euskal Herrian han eta hemen dauden material eta baliabideen bilketa, azterketa eta sailkapena.
ESTITXU GARAI, IRATI AGIRREAZKUENAGA, IRENE GARCIA, SERGIO MONGE, ANGERIÑE ELORRIAGA, PATXI AZPILLAGA, AINARA MIGUEL, NAROA JAUREGIZURIA ETA KOLDO ATXAGA (NIK IKERKETA TALDEA). > Euskararen marka: marketinetik hizkuntza plangintzara.
IÑIGO BEITIA > Kulturaren eragina hizkuntzaren biziberritzean. Behin-behineko ondorio batzuk.
XABIER AZKUE > Zumaian ELE aplikatzeko oinarriak.

harpidetu edo oparitu > URTEAN 40 euro

<https://bat.soziolinguistika.eus> / 943 592 556 / bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus

**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

BEÑAT MUGURUZA, GARBIÑE BEREZIARTUA > Hitanoa euskal hiztunen komunitate garaikidean: molde zaharretatik ertz berrietara.
SAIOA MARTINEZ DE LA HIDALGA > Hizkuntza erdigunera. Urola Kostako adinekoen osasun arretan hizkuntzak duen eragina aztergai.
AINARA ORTEGA > Idatzizko trebetasuna testuinguru soziolinguistikoko desberdinetako CLIL eta ez-CLIL ikasgeletan.
AINHOA PARDINA > D ereduan euskaldundutako Lizarrako hiztun berri gazteen euskararen erabilera.
ONINTZA LEGORBURU > Euskararen esanahia(k) euskalgintzako testu multimodalaren azterketa genero perspektibatik (1960-2018).
IDOIA GRANIZO > Altsasuko hizkuntza-paisaiaren azterketa euskararen biziberritzearen testuinguruan merkataritzako esparrua.
NAROA ANABITARTE > Elebitasuna eta garuna. Etenik gabeko eztabaida.
SOZIOLINGUISTIKAREN MUNDUKO LEIHOA
Liburu berri hautatuak soziolinguistikaz
MAGDALENA PASIKOWSKA-SCHNASS > Regional and minority languages in the European Union.

MARYAM FATHI

KJAR Ekialdeko Kurdistango Emakume Askeen Elkarteko
arduraduna Europan

“Emakumeen borrokak Ekialde Ertainean lore bat erein du”

Teheranen barrena zioala atxilotu zuen Polizia Moralak, irailaren 14an, 22 urteko Mahsa Amini. Jatorriz Rojhilatekoa [Ekialdeko Kurdistan], familiarekin joana zen hirira egun batzuk pasatzera. Hijaba egoki jantzita ez eramatea egotzirik, komisariara eraman zuten, “berreziketa” gauzatzera. Ile-xerka bat zeraman zapitik kanpora, hori gaztearen delitua. Atxilotetaren egun berean ospitaleratu zuten koma egoeran, eta irailaren 16an hil zen. Irango autoritatearen arabera, bihotzekoak jo zion; senideek, aldiz, argi dute

torturen ondorioz hil dela. Iritzi bera nagusitu da jendartearen zati handi batean, eta suminak protestan altxarazi ditu hainbat herritar. “Esan dezaket Irango Errepublika Islamikoa indarrean denetik jazo diren protesta handienak direla”, adierazi digu Maryam Fathi kurduak irailaren 30ean. Ordutik protestek ez dute izan etenik, eta hedatuz joan dira bai Iranen bai Irandik kanpo. Egoerari buruz gehiago eta lehen eskutik jakiteko bildu gara Fathirekin, Bilbon bizi den Rojhilateko errefuxiatuarekin.

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Mahsa Aminik Irango Errepublika Islamikoak bereziki zigortzen dituen bi komunitateak gorpuzten zituen: emakumea eta kurdua zen. Faktore horrek badu pisua gertatu den eta gertatzen ari den guztian, ezta?

Mahsa ez da Irango Errepublika Islamiakoaren lehen biktima, ezta azkena ere; protestak hasi zirenetik beste emakume asko hil dituzte. Mahsa, baina, emakumea izateaz gain komunitate kurduaren parte zen. Eta gertatzen da agintaldian daramatzan 40 urteotan Irango Errepublika Islamikoak ez duela lortu komunitate kurduan ezarri nahi zuena guztiz ezartzea. Besteak beste, kurdua gizarte politizatua delako, emakumeen mugimendu sendoa eta antolatua duelako, islamak okupatzea lortu ez duen kultura aberatsa duelako. Horregatik, Poliziaren patruilek ezin izan dute Teheran edo Shiraz bezalako hiri handietan erabilitako indarkeria bera

aplikatu Rojhilat-eko [Ekialdeko Kurdistan, Irango estatuaren mugetan] hirietan. Eta Mahsaren hilketaren berri jakin zenean, albisteak eztanda eragin zuen komunitate kurduan; haserre, sumindura, amorrua eragin zituen.

Mahsaren familiak zerikusi handia dauka gertatzen ari den guztia erekin. Irango familia askok ez dute beren senidearen hilketa salatzen beldurragatik, batez ere seme-alaba gehiago hil ez diezazkieten. Gazte asko exekutatzen dituzte, emakume asko hiltzen dituzte, baina gertakizun horiek ez dira argitara ematen. Baina Mahsaren nebak, amak eta aita publiko egin dute gertakaria, telebistan agertu dira, eta argi adierazi dute ez dutela onartzen estatuaren bertsioa. Gobernuak dio Mahsa bihotzekoak jota hil zela, baina medikuek ez zioten gauza bera. Nebak arreba ikusi ahal izan zuen, eta haren gorputzean ubeldurak antze-

man zituen, atxilo egondako bi orduetan jasotako indarkeriak eraginak. Familiak erabaki du ez isiltzea, eta ahotsa altxatzean herriak, Iran guztiak, babestu egin ditu. Hau gakoa da istorio guzti honetan.

Aminiren hilketak altxarazi ditu herritarrak. Halere, urak gainezka egiteko falta zen tanta izan dela dio hainbatek. Aminiren heriotzagatik suminduraz harago, zer dago?

Jendea zeharo suminduta dago Mahsaren hilketagatik, baina egia da urak gainezka egiteko falta zen tanta izan dela. Nazio, etnia eta erlijio mosaikoa da Iran, baina Irango Errepublika Islamikoa herri asko –kurdua, azaria, balutxea, arabea, gilakia...– okupatzen eta kolonizatzen dituen nazio-estatua da. Hortik sortzen diren gatazkak daude alde batetik, herriek beren autonomiagatik borroka egiten dutelako. Baina horrez



gain, auzi ekonomikoa ere hor dago. Irango gizartearen geroz eta zati handiagoa bizi da pobrezia-mailaren azpitik, klase desoreka ikaragarria dago, gehien-
goak zailtasunak ditu duin bizitzeko, eta horrek ere sortzen ditu gatazkak. [2015eko Akordu Nuklearra haustegatik] Mendebaldeak jarritako zigor-ekonomikoak ez dira arazo ekonomiko horien eragile bakarra, estatuaren politikek eta ustelkeriak eraginak dira baita ere. Horrez gainera, Irango Errepublika Islamikoaren agintaldiko 40 urteetan emakumeen borrokak ez du etenik izan, mentalitate eta ideologia ultra-erlijiozkoa duen estatu autoritarioa eta teokratikoa izateaz gain, erabat patriarkala baita. Irango konstituzioa irakurriz gero senti daiteke gobernatzen duten gizon-emakumeen gorrotoa, genero maskulinoa gorpuzten ez duen ororenganakoa. Gorroto horretan hezten ari dira umeak,

“Jendeak dio
galtzekorik ez duela.
Aske izanen dira
edo hilen dira”

Maryam Fathi

eskoletan heziketa zeharo matxista eta sexista ari baitira ematen.

Horrekin guztiarekin esan nahi du-dana da Irango Estatuak ez duela aurre-
rapausorik eman, ez da herrien eta herrialdeen demokratizaziorantz egindako mundu mailako aurrerakuntzekin batera joan. Are, geroz eta atzerago ari da ge-

ratzen zentzu horretan, geroz eta isolatuago. Jendeak ezin du gehiago egoera horrekin. Ez daukate deus galtzeko, horregatik atera dira kalera. Datuen arabera, exekuzio gehien egiten dituen munduko herrialdea da Iran, baina horrela ere ez du lortu beldurraren kultura errotzea, hori baita darabilen indarkeriarekin lortu nahi duena. Jendea protestan atera da kalera, eta poliziek tirokatzen badute ere hortxe mantentzen dira, hain baitaude sumindurik. Herrialdea kartzela bilakatu da, eta jendeak dio galtzekorik ez duela. Aske izanen dira edo hilen dira. Hori da Irango azken altxamendu hauetan arnas daitekeena.

Kurdistango emakumeen “Jin, Jiyan, Azadi!” leloa nagusitu omen da protestetan. Sinbolikoki bada esanguratsua, ezta?

Gobernuak Mahsaren hilotza oharkabean

lurperatzeko asmoa zeukan, goizaldean. Baina jendeak horren berri izan zuen, eta giza-ekutua egin zuten lurperatzea gauez egitea eragozteko. Biharamunean, Mahsaren hiletan emakume kurduak be-
loa erantzi zuten “Jin, jiyen, azadi!” oihu artean; “emakumea, bizitza, askatasuna” esan nahi du kurdueraz, eta emakume kurduak aspalditik errepikatzen ari diren esaldia da. Aldarri hori aireratu dute Kurdistango mendietan, Rojavako iraultzan, ISISen aurkako borrokan, turkiar estatu faxistaren aurkako borrokan... lelo hori bizitzaren, militantziaren, manifestua baita beraientzat. Mahsaren hiletako une hori bideoz jaso zen, eta bideoa hedatu ahala, “Jin, jiyen, azadi!” leloa joan zen nagusitzen Teherango eta gainontzeko hiri eta herrietako protestetan.

Rojavako gertakizunak mugarrira izan ziren Ekialde Ertainean. ISISen aurrean defentsa egin zuten emakume ausart horiek, konfederalismo demokratikoaren proiektuaren abanguardia izateko gai izan diren emakume horiek, lortu dute jendeak konfederalismo demokratikoa alternatiba gisa ikustea. Propaganda asko dago beren aurka, gobernuen eta zenbait alderdi nazionalisten partetik; horiek nahi dituzte nazio-estatu gehiago, ez dute batasuna nahi. Kontrara, konfederalismo demokratikoak norbanakoei, komunitatei eta herriei autodeterminazio eskubidea ematen dien hein berean, batasuna ere eskaintzen die. Hori da proposamena. Izan ere, identitate askotarikoak ditugu, bizpahiru etnia biltzen dituzten herriak eta hiriak ditugu. Errealitate horri erantzuten dion proiektuak dira beharrezkoak. Rojavan egin den prozesuak praktikara eraman du konfederalismo demokratikoaren proposamena, eta horrek eragina izan du. Irango emakumeek erreparatu diote han egin denari, eta Rojavako iraultzatik hainbat hizketaldi, bilkura eta topaketa egin dituzte. Ondorioz, Iranen ere badaude martxan konfederalismo demokratikoa sortzeko proiektuak. Eta horrek zerikusia du Iran guztian “Jin, jiyen, azadi!” oihukatzearekin. Emakumeen borrokak Ekialde Ertainean lore bat erein izan balu bezala da. Mezua helarazi da, eta esperantza moduan jaso izan da. “Jin, jiyen, azadi!” oihukatzen dutenek badakite nondik datorren.

Beraz, kurduen borroka eragina izaten ari da Kurdistandik harago?

Hiru hitz horiek magikoak dira! Kurduok emakumeen auzia zentralizat dugu. Jendartearen esklabotza emakumeen es-

klabotzarekin hasi zen, hori da guk pentsatzen duguna. Hargatik, zera diogu: emakumeak aske ez diren artean, ez Kurdistan ez ezein herri ez da aske izango. Zeren emakume gisa ez banaiz aske, zer zentzu dauka esateak nire herria askea dela? Generoagatik, orientazio sexualagatik, ez banaiz eskubide osoko pertsona, ez da egonen bizitzarik. Baldintza horietan bizitzak ez baitauka zentzurik. Horregatik, feminizidio bakoitza, indarkeria matxista kasu bakoitza, emakume guztien aurkako eraso gisa ulertzen dute emakume kurduak. Eta lelo horrek hori esan nahi du. Politika da, baita ere, gizonek ere leloa oihukatzea.

“Kurdistan bere burua antolatzeko gai den era berean, Irango herriei lagun diezaieke konfederalismo demokratikoa eratzen”

Maryam Fathi

Leloarekin gertatzen ari denak erakusten digu pentsaera horrek Kurdistango mugak gainditu dituela. Noski, ez da ausaz gertatu. Kurdistango emakumeen mugimenduak lana egin du hala gertatu zedin, batez ere 90eko hamarkadatik aurrera. Garai haietan, mugimenduak biraketa bat egin zuen: hasieran “emakume kurduen mugimendua” zena “Kurdistan-
go emakumeen mugimendua” bilakatu zuten. Hasierakoak identitate itxiari egiten zion erreferentzia, eta identitate hori zabaldu zuten edozein emakume ikusi ahal izateko bere burua mugimendua horren baitan, edozein izanik ere bere identitatea –nazio, erlijio eta pentsamenduari dagokionez–.

Emakumeak hijab-a kentzen eta erretzen erakusten dituzten irudiak egin dira biral. Horren aurrean, irakurri ditut zenbait ohartarazpen, irudion irakurketa egokia egitearen garrantziaz ohartaraziz. Jopuntuan dagoena ez dela islama, baizik eta Errepublika Islamikoa sostengatzen duen sistema ideologikoa eta politikoa. Gauza bat bestearekin nahasteak ondorioak izan ditzake,

islamiarrak diren eta ez diren manifestarien arteko polarizazioa kasu. Hori bultzatu nahi da?

1979an, Irango Errepublika Islamikoa eratzearekin batera, errepublikaren lider eta fundatzaile Khomeinik zera esan zuen jendaurreko lehen agerraldian: momentu honetatik aurrera, txadorra jantzi gabe kalera ateratzen den emakumeak 74 zigorrada jasoko ditu. Gogoan dut eskolan hasi nintzenean nola hasi nintzen beloa jantzten, eskolara ezin baitzara belorik gabe sartu. Sei urteko haurrez ari gara. Hori ez da hautua, ez da kultura; errepresioa da. Erlijiosismoa da, boterea edota zeinbait helburu lortzeko erlijioaren erabilera. Misoginia da, emakumeekiko gorrotoa. Horregatik beloa, Iranen, emakumeekiko eta gizartearekiko errepresioaren sinboloa da. Eta berau erantzten eta erretzea, aldarrikapena.

Ilea moztea izan da protestarako beste modu bat.

Ekialde Ertainean bada zerbait kulturala. ISISek yazidien eremuei eraso egin zienean, bizirautea lortu zuten hainbat emakume beren adatsa moztu zuten, hildako senideen hilkutxan jartzeko. Amorrua eta haserrea adierazten dituen keinua da. Kermanshah hiri kurduan, Mahsaren hilketaren aurkako protestetan hil zuten emakume baten kasuan ere, haren 13 urteko alabak bere buruari moztutako ilea utzi zuen amaren hilkutxan. Min izugarria sentitzera iritsi behar da hori egiteko. Gainera, Mahsaren kasuan, ileak esangura handia du; beloa “behar bezala” jantzita ez eramatearren hil zuten, ile-xerlo bat bistan eramateagatik. Beraz protesta gisa ilea mozteak zera adierazi nahi du: “Nik ez dut nahi ile hau, ile honengatik heriotza-mehatxupear baldin banago”. Mezu erradikala igortzen zaio gobernuari: “akabo, ez gaude gehiago isiltzeko prest”. Absurdua da beloa egoki jantzita ez eramateagatik inor hiltzea, kartzelaratzea. Absurdua da ezin erabaki izatea baloa jantzita ala jantzi gabe ateratzea kalera. Emakume batek gorputzaren gainean erabakiak har ditzakeen bakararra emakumea bera da, eta mezu hori ari dira helarazten gobernuari.

Ez dirudi gobernuak aldaketak egiteko prest dagoenik. Mobilizazioen bidez ikusten duzu aldaketa gauzatzeko aukerarik?

Iranen aldaketa egongo da. Herritarrek ez dute espero aldaketarik gobernuaren



Protestak Irandik harago hedatu dira. Argazkian emakumeak Iranen Istanbulgo enbaxadaren ateetan. Lehen lerroan ageri denak protesta gisa moztutako mototsa du eskuetan.

partetik, eta altxatu badira aldaketa beraiek egin nahi dutelako da. Horrek izan ditzake bere alde onak eta txarrak. Gerta daiteke herritarrek gai izatea gobernu indarretik kentzeko eta demokrazia erradikal bat ezartzeko, edo guztiz kontrako norabidean eman daitezke gertakariak: Irango Estatuaren errepresioak isilarazi ditzake protestak, edo protestak truke-txanpon bezala balia ditzake Iranek –erabiltzeko arma nuklearren harira Mendebaldearekin duen jokoan, edo Irak, Siria eta Libanon dituen arazoetan...–.

Nire ustez, aldaketa egon, egongo da. Pentsatzen dut Irango jendea gai dela gobernu ordezkatzeko, baina hori bai, kontuz ibili beharko dira protesten harira nazioartean sor daitezkeen interesekin. Siriaren bide bera hartzeko arriskua bailegoke. Gertatzear den guztiarekin, protestak erabiliak izateko arriskua oso problema da. Baina aldaketa, egon, egongo da.

Onerako zein txarrerako.

Aldaketa ez da txarrerako izango. Gerta daiteke nahi dugun guztia ez lortzea? Bai. Baina uste dut txarrerako ez dela izango aldaketa. Beloa “gaizki jantzi-ta” eramateagatik feminizidiao egiten dute... uste dut txarrera joaterik ez dagoela. Hori zen gerta zitekeen okerre-na, eta gertatu da. Datorrenari norabide

bat ematea gure gaitasunen arabera izango da. Ni atzerrian nago, haien aho-tsa izan naiteke, baina ezin dezaket besterik egin. Baina garrantzitsua da Iranen dagoen jendea antolatzea, gainditu ahal izateko bai nazioarteko interesak bai gobernu misogino eta ultra-erlijiosoa.

Hori Iranen. Eta Rojhilat-en? Aldaketarako aukerarik ikusten duzu?

Iranen gertatzen den gauza oro probestuko du Kurdistanen. Rojavan egin dugun bezala, beste toki batzuetan egin den bezala. Kurdistan bada gai aldaketa bat gauzatzeko. Are, Irango herri guztien artetik, soilik Kurdistanen kasuan baieztatu dezaket aldaketarako gaitasuna daukatela, bai momentuotan behintzat. Zerbait gertatuz gero, autogobernu demokratikoa ezartzeko gai liriteke. Gainontzekoen kasuan, ezin ziurtatu dezaket ezer.

Irango Kurdistanen urteetako lana egin da maila politikoan, formakuntzan mailan. Klandestinoki, baina arian-arian egin da. Beti izan da herri bizia, badu kaleko borroken eta greben ibilbide luzea. Beldur gutxien ematen didan herria da kurdua, nahiz eta berak jasango duen errepresio gehien, nahiz eta bertan eragingo duten sarraski handiena. Baina badakit Kurdistanen herria antolatzeko gai den mugimendu politikoa duela, ba-

dakit emakumeen antolakunde autonomoak gai direla lidergotza hartu, abangoardia izan, eta aldaketa gauzatzeko. Baina gainontzekoek arduratzen naute, ez baitaukate guk daukagun sortea, falta baitaie Kurdistanen hain indartsu dagoen ildo libertario eta ezkerrekoa. Harelere, Kurdistan bere burua antolatzeko gai den era berean, Irango herriei lagun diezaieke konfederalismo demokratikoa eratzen.

Pentsatzen dut hein handi batean horrek arduratzen duelako hasi dela Irango Gobernu gerrillari kurduek Iraken dituzten baseak erasotzen. Oker ez banabil, gutxienez hamahiru pertsona hil dituzte.

Bai, hain justu horregatik ari dira bonbardatzen Kurdistango mendiak, Iran eta Iraken arteko mugakoak. Bertan daude Rojhilateko gerrillariak. Baina bonbardatu dituzten kanpamenduetan ez daude bakarrik lider politikoak, jende gehiago bizi da han, baita haurrak ere. Eskola bat ere bonbardatu dute. Hainbat pertsona zauritu eta hil dituzte honez-kero, eta gehiengoa ez da peshmerga [“gudari” kurdueraz].

Iran bonbardatzen hastearekin batera, gauza bera egin du Turkiak, nahiz eta Turkiak etengabe egiten duen hori. Baina probestu du egoera, mugimenduari norabide ezberdinetatik eraso eginez gero, gaitasun gehiagorekin egiten duzulako eraso.

Bada galdetu ez dizudanik, eta adierazi nahi zenukeenik?

Inoiz baino gehiago, Irango herritarrek elkartasun behar dute. Kide feministen, anarkisten, sozialisten, ezkerreko alderdien... mundu hobe baten alde borroka egiten duen ororen elkartasuna behar dute. Bi bloke –bata inperialista eta beste anti-inperialista– daudelako pentsamolde klasikoa ez dadila izan, mesedez, ahotsa ez altxatzeko eta babesik ez erakusteko arrazoi.

Hunkitzen nauten mezu asko ari naiz irakurtzen Twitterren. Ezagutzen nuen jende askok, kalera atera aurretik, zera zioten: itzultzen ez baziren, mesedez emateko segida borrokari [hunkituta]. Eta bada etxera itzuli ez denik. Behintzat, hilketa horiek izan dezatela emaitzaren bat. Baina horretarako elkartasuna ezinbestekoa da, gainontzean Irango herria bakarrik dagoelako. Mundua beraiei adi dagoela badakitelako jarraitzen dute, hein handi batean, protestek. ●

“ ”

Komunitateak birsortzean datza gakoa, indibidualismoa baztertzean

Alaitz Ajuriagerra

Azken krisia. Gure garaia! lelopean iragan berri diren Euskal Herriko lehen Ekotopaketak bukatu berri direla, antolatzaileen artean egondako Alaitz Ajuriagerrarekin hitz egin du ARGIAk, besteak beste, Euskal Herriko mugimendu ekologista eraldatzaile eta eraginkor bat sortzeko erronkari hurbilagotik so egiteko. Bertakoa mundu mailan kokatuz, borroka ekologista ikuspegi dekolonialetik eramateko garrantziaz ere aritu gara.

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Ekotopaketak bukatu berri, nola zarete? Pozik seguruenik, ikusirik jaso duen harrera.

Oso pozik. Genituen espektatibak gainditu ditugu. Gure behin-behineko balorazioa oso positiboa da. Kuantitatiboki (jende asko) eta kualitatiboki (jende gaztea eta emakumeak, energia eta parte-hartze handia, eztabaida biziak eta anitzak, ikuspegi eraikitzailea...) arrakastatsuak izan dira Ekotopaketak.

Hiru egun horiei begiratu eta zer azpimarratuko zenuke?

Aurreko galderari erantzundakoaz gain, giro ona, ilusioa eta aurrera egiteko jasotako indarra azpimarratuzko nituzke.

Pertsonalki, ideia edo gogoeta batek bereziki aberastu zaitu? Bazabiltza markatu zaituen hausnarketa edo irakurketa bat gogoan?

Plazera izan zen niretzat ekofeminismoaren mahai-ingurua moderatzea eta parte hartzaileek ekarri zituzten ideia

eta hausnarketak entzutea. Helburua mugimendu feminista eta mugimendu ekologistaren arteko aliantzen eta erronken beharraz eztabaidatzea izan zen, eta hor nekazaritza edota baserri-tik ekarri zen ekarpena azpimarratuko nuke: “agro” aurrizkia txertatzearen beharra. Horrez gain, Hegoalde globaletik mahaigaineratu zen kapitalismoarentzat lurren kontrola mantentzearen garrantziaz hausnartzearena eta horrek dituen ezkutuko oinarriak –arrazistak, kolonialak, kapitalistak eta heteropatriarkalak– argitzearen beharra.

Ekologisten artean saretu izana edo behintzat, saretze bidean urrats bat eman izana ere da Ekotopaketen emaitza.

Bai, eta gainera nabarmentzekoa da gure helburuak bete direla: elkar sare-tzen joatea eta jende berria erakartzea. Egun mugimendu ekologistan antolatuta ez dagoen jende asko hurbildu zen –500etik 350 bat–; horrek asko poztu

gaitu. Krisi ekosozialaren aurrean kezka gero eta handiagoa den seinale da.

Nafarroa, EAE eta Ipar Euskal Herritik batu da jendea ala mapa nazionala ez da nahi bezainbeste bete?

Orokorrean, herrialde guztietatik hurbildu da jendea. Egia da Bizkaitik izan direla gehiengoak, Portugaleten izanda topaketen irisgarritasun irizpidea hartu behar dugu kontuan; baina asko izan dira Gipuzkoatik, Nafarroatik eta Arabatik etorritakoak. Agian Iparraldeko kide gutxi, baina bertan antolatuago daude gai honen inguruan eta Hego Euskal Herrian saretzea da momentu honetako apustua –hori, elkarlana eta esperientziak baztertu gabe–.

Geroari begira, Euskal Herrian ere olatu ekologista bultzatzeko eta gauzatzeko helburua jarri duzue mahai gainean. Zer nolako ezaugarriak lituzke olatu horrek?

Ekologiaren garaia da!

Alaitz Ajuriagerra ageri da argazkian, ezkerretik hasita lehena da. Topaketetako "Bizitza bizigarriak ekofeminismotik" hitzaldia bideratzen egon zen.



Transbertsalitate kontzeptua aipatuko nuke. Izan ere, gure egunerokotasunean ekologismoak arlo guzti edo askotan bustitzen gaitu, nahiz eta kontziente ez izan. Helburu nagusia jendartera heltzea izan beharko litzateke. Ekologista kontentziatuak erakartzea da errazena; baina beste gai batzuetan politizatuta eta aktibatuta dagoen jendea beharrezkoa dugu aliatu gisa; eta ortzimuga, jende ez politizatua ekologismoan aktibatzea izango da. Ez da erraza izango, goazen pausoz pauso.

Ikuspegi dekolonialak garrantzia handia du auzi horretan. Gure kontsumoaren alde kolonialista ezin daiteke uka: gure telefono zein ordenagailuetan gordetzen da Hego Hemisferioko herriak suntsitzen dituen mineral ustiaketa eta berdin, gure energia "berdea"-rentzako ditugun eoliko eta eguzki-plaketan. Zer diozue gure kontsumoari begira? Ez dira galdera errazak erantzuten. Kri-

“ ”
***Deshazkundera
bidea dela ikusten
dugu askok; gakoa
da nola bideratuko
dugun trantsizio
hori: behartuta edo
planifikatuta?***

si ekosoziala bere osotasunean ulertu behar da eta baita mundu mailako geopolitika eta merkatu kapitalistaren logika ere. Kontsumoa zabala izan daiteke, baina bereziki hiru kontsumo mota

nabarmenduko nituzke egun bizitzen ari garen mundu mailako gudan: energetikoa, elikadura eta elektronikoa. Hori esanez, turismo kontsumoari, ehungaiei edo arropa eta bestelako kontsumoei ez diet garrantzia kendu nahi, horiek ere sekulako eragina dutelako herrialde kolonizatueta: ez soilik mineral eta lehengaien ustiaketa eta horren eraginaz ingurumenean; lurren desjabetze, eskubide sozial eta lan esplotazioan ere. Zentzu horretan gure azterna ekologikoa eta zor kolonialaren inguruan hausnarketa sakona egin behar dugula uste dut.

Azkenean, badirudi deshazkundera dugula bidea. Nola bideratu daiteke? Hizlari batek zioen "gutxiago kontsumituz pozik edo akaso poz handiagoarekin izango garenaren ilusioa piztu behar dugu". Nola lortu daiteke hori? Askok ikusten dugu deshazkundera dela bidea, eta gakoa da nola murriztuko du-

gun gure kontsumoa eta nola bideratuko dugun trantsizio hori: behartuta edo planifikatuta. Izan ere, lehengaiak eta mineralak agortzen ari dira eta bai edo bai gutxitu beharko dugu gurea, gure bizimodua aldatuz. Baina horrek eraldaketa sakonak eskatzen ditu eta kezkatzen nauena da jendartearen kontzientzia ote den horretaz eta prest egongo ote den horretarako, kapitalismoa eta kontsumismoa oso erakargarriak baitira. Gainera, bizitzen ari garen krisia koiunturala dela ulertarazi nahi digute gobernu ezberdinek, alta, estrukturala dela ezin da ukatu. Nire ustez, pedagogia eta sentsibilizazio lan handia dago egiteko oraindik; eta jendartearen ez da tontotzat hartu behar. Egoera modu sinple eta ulargarrian azalduz gero, errazagoa izango da piztea gutxiagorekin bizitzeak poz handiagoa izango dugularen ilusioa. Eta ez hori bakarrik, desahazkundera hori planifikatzeak ere lana erraztuko luke, esate baterako, aldagetak ez direlako norbanakoetan bakarrik emango, eredu produktiboa ere moldatu beharko delako, energia iturriak ere aldatu beharko direlako...

Hori guztia bideratzeko ezinbestekoa da aberastasuna, zaintza lanak eta enplegua banatzea –ez dezagun ahaztu ikuspegi feminista txertatzea eta praktikan jartzea, finean, bizitza erdigunean jartzea–.

Ekologistak aspaldian aktibo badira ere Euskal Herriko hainbat txokotan, instituzio eta agintari politikoek ez dute kontuan hartzen horien ekarpena. Nola aldatu daiteke hori?

Mugimendu ekologista indartsu batekin eman diezaiokegu buelta horri, baita gainontzeko eragile, sindikatu eta alderdiekin elkarlanean adostasunetara helduta ere. Esango nuke, orain arte bai mugimendu ekologistak, baita instituzio eta eragile politikoek ere modu sektorialean jorratu izan dituztela arazo ekologikoak –baina, egoera bere osotasunean aztertzea ezinbestekoa da–. Adibidez, gaur egun energiaren, materialen zein lehengaien lehia batean sartuta gaude bete-betean, trantsizio energetikoaren beharra azkartu duena. Horrek epe labur eta ertainean izango du eragina hainbat esparrutan –norbanakoen kontsumoa; eredu produktiboa; lanpostuetan; ingurumenean; pobretze prozesu batean murgilduta gaude eta eragin ekonomiko eta sozial handiak ekarriko ditu–. Horregatik, eztabaida ez da soilik energia



“ ”

***Gure helburuak
bete dira:
elkar saretzen joatea
eta jende berria
erakartzea”***

berriztagarrietan zentratutako, baizik eta, pobrezia energetikoan, lurraldearen antolamenduan, elikaduran, etxebizitza baterako sarbidean, migrazioan, zerbitzu publikoen eta prestazio sozialen murrizketan ere bai. Ez die pertsona guztiei era berean eragingo –beti bezala, emakumeak eta pertsona migratu eta arrazalizatuak izango dira ondorio guzti hauek lehenak pairatzen–. Eta ez dezagun ahaztu herri gisa ez garela burujabe hainbat erabaki hartzeko. Garrantzitsua iruditzen zait aliantzak sortzea eta elkarlanean aritzea –iritzi pertsonala da, orain arte gure artean ez ditugulako horrelako eztabaidak eman oraindik–.

Ezin ukan garai gogorrek datozela eta pesimismoa baztertzea neke zaigu askori. Zuek ez duzue sentsazio horretan gelditzeko asmorik. Nola

mantendu dezakegu itxaropena eta baikortasuna?

Badirudi mugimendu eta ikerlari ekologistak pesimistak direla, kolapsatzen ari garela diotenak umore txarrekoak direla... baina mugimendu alaia da, bizitzaren aldekoa da. Komunitateak birsortzean datza gakoa –indibidualismoa baztertzean eta gure artean elkarlaguntzean eta zaintzean–, baloreak aldatzean eta gure txikitasunetik elkarrekin garaipen txikiak lortzen joatean. Egoera ez da egun batetik bestera aldatuko, trantsizio ekosoziala prozesu luzea izango da eta denon partaidetza ezinbestekoa izango da.

Orain konkretuki, nola errotu nahiko zenukete Ekotopaketetan errandakoa?

Une honetan garrantzitsuenak saretzea da, jendea mugimendu honetara batzea. Ekotopaketetan ikusi eta sentitu genuen indarra eta ilusioa bideratu beharra daukagu, eta orokorrean, gure mezua eta borrokarako grina zabaldu behar daukagu jendartera. Prozesu bat izango da eta ibilbide luzea dugu oraindik aurretik. Hasteko, parte-hartzailea izango den dinamika edo kanpaina bat abiatuko dugu, gai konkretu baten bueltan. Ikusiko dugu horrek nora garamatza eta nola eragingo duen. Guztia dago oraindik diseinatzeke eta martxan jartzeko, baina talde jator, anitz eta ilusionatu bat prest gaude horretarako. Ez dela gutxi. ●



Kinka

KLIMA ETA NATURA KRISIAN

Podcasta eta buletina, **hamabostero**.



**Harpidetu zaitez
buletinera**

Berria.eus/kinka



berria

zuk badakizulako

Kontxakoa ez da baranda mitiko bakarra

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Kata taberna ondoko barandan, 1980ko hamarkadako eta gaur egungo taldeak.



ARGIA ARTXIBOA

ARGIAren irakurle gazteenek akaso ez dute 1980ko hamarkadaren hastapenetan Egiako eskaileretan ateratako argazki hura gogoan, baina aspaldi xamarretik aldizkaria jarraitzen dutenek ezagutuko dute, seguru. Kata tabernaren pareko barandaren bueltan agertzen dira orduko kide batzuk, ARGIAri 'Zeruko'-a kendu eta enpresa langileek erosi berritan. Hantxe bertan izan zuten lehen lokal txikia, eta berrogei urte geroago gaur egungo taldea leku berera itzuli da, bisitan.

1981era arte Kaputxinoena zen as-tekaria langileen esku geratuta, Egian hasi zuten ibilbide berria eta lehen urte haiek markatu zituen auzora egin dute *tour*-a Pello Zubiria lankide beteranoak gidatuta. Gaur egun Dabadaba dagoen

pabiloian egin dute lehen geldialdia. Hura izan zen Egiako azken geltokia. 1988tik 1990erako tartea egin zuten bertan, Antza inprimategi sortu berrian. Bertara lekualdatu zuten erredakzioa ere eta dena egiten zen leku horretan; lan komertziala, inprenta, aldizkaria... Euskarazko egunkari bat egitearen ideia lehendik bazetorren ere, garai eta espazio horretan abiatu zen *Euskaldunon Egunkaria*-ren proiektua. Estilo liburua ekarri du gogora Zubiriak: "Hemen egin zuten Koldo Izagirrek, Koro Zumalabek, Malores Etxeberriak eta Luistxo Fernandezek", azpimarratu du.

Handik joan dira orain Ametzagañara, *Irutxuloko Hitza*-ren erredakzioa dagoen lokalera. Bertan egon zen 1985etik 1988ra erredakzioa. Ondoan zituzten,

gainera, Egia eta Berdin abokatuen kolektiboak; zeinak eskaintzen zieten bakesa langileei.


Kata tabernaren ondoko lokal txiki-ira iritsi dira azkenik. Auzoan lehen pausoak eman zituzten tokira eta atera dute gaurko familia argazkia, baranda mitikoan. Desberdina 1980ko hamarkadakoarekiko, baina balore berak mantenduz: independentzia, lurraldetasuna, euskaltzaletasuna...

Beti da inportantea jakitea nondik gatozen, nor izan ginen. Belaunaldi belaunaldi informazioa galtzen joatea naturala bada ere, historiaren transmisioa egitea garrantzitsua da, ibilbidean jarritako mugarriak ezagutuz, ondorengoek hurrengo harria non pausatu oinarri bat izan dezaten. ●

Dabadaba dagoen pabiloiko sarreran eta Pello Zubiriaren azalpenak entzuten Ametzagañako lokalean.



Nguyen Van Dong, euskal errefuxiatuen aldeko keinu ahaztua



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Biarritz, 1972ko urriaren 14an. Ja-valquinto lorategietan, udaletxearen ondoan, Nguyen Van Dong vietnamdar herritarra suizidatu zen, bere buruari bonzo erara su emanda. Biharamunean *Sud Ouest* egunkarian aipamen laburra egin zioten gertaerari eta hurrengo egunean datu gehiago jasotzen zituen artikulua atera zuten. Hego Euskal Herriko eta Espainiako medio nagusiek Efe agentziaren oharra besterik ez zuten jaso. Kasu guztietan gertaeraren hainbat xehetasun jaso zituzten, besteak beste lekukoek ezin izan ziotela bizia salbatu, eta handik lau ordutara identifikatu zutela 73 urteko gizona –gaur egun, webgune batean “vietnamdar gaztea” esaten dioten arren–. Pista lauso bat ere utzi zuen prentsak: Van Dong Paueko psikiatrikoan ingresatuta zegoela eta egun horretan bertan ihes egin zuela. Baina ez zuten aipatu zergatik suizidatu zen.

Bederatzi urte lehenago Thích Quṇḡng Đḡ monje budistak bere buruari su eman zion (argazkian) Hego Vietnamgo gobernuaren jazarpenaren aurka protesta egiteko. Malcolm Browne argazkilariak gerora Pulitzer saria emango zion argazkia atera zion eta horrek eragin zuen mundu osora zabaltzea muturreko protesta molde horren berri, alegia, nork bere burua bonzo erara erretzearen berri –“bonzo”k monje budista esan nahi du–. Bada, zeren aurka egin nahi zuen protesta Van Dongek?



MALCOLM BROWNE

1963an argazki hau mundu osoan zabaldu zen. Bederatzi urte geroago Nguyen Van Dongen Biarritzeko ekintza bertsuak ez zuen ia oihartzunik izan.

Jesús Valenciaren *La ternura de los pueblos* (2011) eta Iñaki Egañaren *Iheslariak* (2015) liburuetan ematen zaio erantzuna galderari: euskal errefuxiatuen aldeko ekintza izan zen. Une horretan hainbat euskal errefuxiatu gose greban zeuden, haien kontrako neurrien aurka egiteko eta Espainiako Estatura egotzi zituzten saihesteko. Orduan, Van Dongek hainbat gutun anonimo bidali zituen egunkarietara, “Yon” edo “Jon” ezizenez sinatuta, neurriak bertan behe-

ra uzten ez bazituzten bere burua erreko zuela mehatxatuz. Eta, azkenean, mehatxua bete zuen.

Ekintzaren 50. urteurrena dela eta, Lander Arbelaitz ARGIAko kazetaria le-rootan jasotako datu eta iturriak biltzen aritu da. Baina oraindik badago zer arakatu; esaterako, *Enbata* aldizkariko eta Paueko psikiatrikoko artxiboek Van Dongen misterioa gehiago argitzeko eta bere ekintzari merezi duen aitortza egiteko bidea zabaldu dezakete. ●

Urpean gordetako Neolitoko drogak

La Marmotta Neolitoko aztarnategia Erromako probintzian dago, Bracciano lakuko urek estalita. Urpean arrasto organikoak ezin hobeto gorde dira eta, esaterako, nabigazioari lotutako egurrezko hainbat objektu aurkitu dituzte –piragua bat barne–. *Science Report-Nature* aldizkarian argitaratu berri dutenez, nazioarteko ikerlari talde batek egurrezko

hiru igitai-kirten aztertu ditu, eta efektu psikoaktiboak dituzten hainbat landare espezie identifikatu. Gizakiek landare horien propietate aluzinogeno nahiz terapeutikoak baliatzen zituztela uste dute ikerlariak, eta aurkikuntza honek duela 7.500 urteko gizakien bizimoduari buruzko informazio interesgarria ematen duela. ●



MUSEO DELLE CIVILTÀ – MPE – L. PIGORINI

RON BIZKAITARRA



JAKOBA ERREKONDO

JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Bost edo sei metro luza daitekeen belar erraldoia da. Belarrari eusten dion zurtoin lodi eta indartsuak kanaberaren egitura du: malgua, zaila eta sendoa. Azukre kanabera da (*Saccharum officinarum*). Lurpean kanaberazko sustrai sare gogorra sortzen du, eta horrek eusten dio zutik, aldagoien aurrean, hainbestearinoko belarrari.

Azukre kanabera Asia aldetik ekarria dugu, azukrea hitza bera bezalaxe. Ginea Berrian sortutakoa omen da. Handik gureganako bide luzeko Malaysia, India, Iran eta abarretan azukreari esateko erabiltzen ziren hitzetatik dator greko-ko *sákcharon* eta latinezko *saccharum* azukre kanaberaren generoaren izena. Arabiarrek eraman zuten Andaluzia aldera duela mila urte baino gehiago, eta handik hedatu zuen Espainiar Inperioak lehenik Makarronesiako irletara (Madeira, Kanariak...) eta handik Amerika tropikalera. Bere langintzaren zabalkundea estu uztartua zen esklabutza-arenari.

Azukre kanabera toki bero eta hezeetan hazten da ondo. Uztan kanabera osoa ebakitzen da, eta behe-behetik kimu berriak emanez berritu egingo da. Sei-zortzi bat urtez eman dezake landare berak, eta gero soro berria egin behar

da kanabera zatiak luberrian landatuz. Biltzen den kanabera jo, zukutu eta muztioa berotuz sortzen da azukrea; kanaberaren pisuaren %10.

Azukrea balio handiko mozkina bada ere, ez da kanabera honi kentzen zaion etekin bakarra. Alkohola ere garrantzitsua da, bai bioerregai gisa eta bai gure barru erregai gisa ere: Karibeko rona, Brasilgo cachaça, Madeirako pontxa, Kanarietako ronmiel eta abar egiten dira.

Ronen artean kubatarrak izan du sona handiena. Gero Kubatik hanka egindako rongileek han eta hemen jarraitu izan dute pattargintzan. Horietakoa da Oliver&Oliver enpresa, zeinak Dominikar Errepublikan munduko onenetakoen artekoa jotzen den VizcayaVXOP rona egiten baitu. Enpresako Ricardo Giuliano dastatzailea eta Omar Lopez nahasle maisua dira ron berezi horren egileak. Beraiek gusturenera edango luketen rona sortu omen zuten.

Bizkaiak zeresan handia du ron-gintzan. Gordexolan 1847an jaio zen Teodoro Jose, Jose Aretxabala Lartuondoren eta Juana Aldama Gastakaren semea. Gaztetan Kubaratu eta 1878rako bere likore enpresa bazuen: "La Viz-



caya". 1934an Havana Club ron ezaguna merkaturatu zuen. Havana Club ronaren etiketan, bere bihotzeko Bizkaiaren armarrria jarri zuen. Armarrri hori eta baita Bilbokoa ere bere beste likoreetan ere agertzen ziren: anisa, ginebra, bermuta, koñaka, alkohol sendagarria...

Gerora, Kubako Iraultza-aren ondoren enpresa expropiatuta, Miamiara exiliatutako familiaren zatiak Bacardi enpresari saldu zion Havana Club AEBetan saltzeko eskubidea; horiek zenbait edizio mugatu-eto etiketetan sartzen dute armarrria. Kubako Gobernuak Pernod Ricard enpresa frantziarrarekin bat eginda mundu guztian banatzen du Bizkaiko armarririk gabe egiten duten ron marka hori bera. Aretxabalaren familia-ko beste zati batek Panaman egiten du Arechavala ron ezaguna.

Teodoro Josek beretzako eraiki zuen indiano etxean dago egun Gordexolako Udala. Etxe hartako sotoan zer ote dago orain lehengo bodegaren partez? ●

ekologikoa, dena hobetzeko!



Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoen Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi

Babesleak:



EKOUDALATX MINTEGIA

“LANDARE EKOLOGIKO BILA ZARAUTZA JOAN BEHAR IZATEA EZ ZEN BATERE EKOLOGIKOA!”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Hori otu zitzaion Idurre Aranguren eta Nerea Altuna arrasatearrei duela urte mordoxka bat baratzegintza ekologikoan ari zirela. “Ortu ekologikoa geneukan aspalditik, baina landareak erosteko Zarautzeraino joan beharra genuen, eta beti ari nintzen horri bueltaka”, azaldu dute Ekoudalatxeko kideek. 2014an eskualdeko hutsune hori betetzeko asmoz ekin zioten mintegi ekologikoa sortzeari, hasiera batean, Bergarako Ubera auzoan lursail bat alokatuta. Produkzio txiki bat aurrera ateratzeko gai zirela ikusita, haien herritik hurbilagoko lursail baten bila hasi ziren. 2017an lortu zuten Arrasatera mugitzea.

Arrasaten lurra eskuratzeko zailtasunak izan zituzten hasieran, oso lur gutxi baitzeuden inguru horretan. Erosteko zailtasunaren aurrean, baina, bestelako aukera bat ireki zitzaion haien bezero batzuen bidez. “Gure bezeroak ziren mediku batzuek proposatu ziguten Aita Menni ospitalean lur zatitxo bat uztea mintegia bertan jartzeko. Lurra ez da gurea, beraz, baina mintegia eta instalazioa bai”, azaldu dute proiektuko bi kideek. Gaztenek programaren dirulaguntza bati esker inbertsioa egin ahal izan zuten, eta lurra uzten dien Aita Menni ospitalekoiei, trukean,



hainbat formakuntza eskaintzen dizkiete urtean zehar. “Haiek ortugintzako talde txo bat dute, egunero etortzen dira lanera, eta gure landareak darabiltzate”, diote.

Euskal Herrian mintegi ekologiko gutxi daudela azaldu dute proiektuko kideek; Gipuzkoan, esaterako, Zarauzko Blaseña –proiektua abiatu aurretik landare bila joaten ziren mintegia, hain zuzen– eta Ekoudalatx soilik ari dira horretan. Mintegi gutxi horien artean harremana badutela azaldu digute Arangurennek eta Altunak. “Gurean lurrak ez du inolako tratamendu kimikorik izaten eta haziak ere ez. Bestetik, fitosanitarioak bereziak dira: estraktuak, olioak edo bakteriak dira, ‘zero hondakin’ deiturikoak”, diote. Ahal den neurrian bertako hazi barietateak erabiltzen ere saiatzen direla azaldu dute, nahiz eta zailtasunak dituzten, landareak legalki ekoizteko haziok erregistratuak egotea beharrezkoa denez.

EKOLOGIKOAN, KONBENTZIONALAREN PARE?

“Nik galdetuko nioke baratzean ari den jendeari: produktua erosten duzunean, landareen jatorriari begiratzen al diozu?”, bota dute galdera. Izan ere, ekologikoan aritzen diren baratzezain askok landareen jatorriari ez diola erreparatzen sumatzen dute, eta landatzen duen horrek kilometro asko egin izanari ez zaiola garrantzia handiegirik ematen uste dute. “Berez, hurbilekoa izateari ere garrantzia eman behar zaio, ekologikoa izateari ematen zaiona bezainbeste”, argudiatu dute.

Mintegiko lanaz gain, formakuntza lanetan ere buru-belarri aritzen dira Ekoudalatxeko kideak: eskola eta ikastoletan, udaletxeetan, unibertsitatean... “Batez ere negu partean aritzen gara jardun horretan, mintegian ekoizpena oso baxua denean”, diote. ●



943 64 17 10
www.endanea.com

**Natura
etxean**

Udazkenean etxeaz gozatzeko barruko eta kanpoko landareez gain, dekorazio eta apaingarriak ere eskaintzen dizkizugu.

Online denda ➔



Hondatu da mendia, jausi zaigu bizia

Heriotza, drama, lana, luizia, mina, angustia. Mugak, neurriak, grinak, maitasuna eta sendia. Inauteria. Zaldibar eta pandemia; bizitza zabortegean. Estreinatzeaz da Axut eta Artedrama antzerki konpainiek elkarlanean sortu duten azken lana: *Hondamendia*. Urriaren 14an egingo dute lehen emanaldia, Luhuson.

 AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE  AINHOA RESANO

2020ko otsailaren 6a zen Zaldibarko zabortegeko luizia gertatu eta bi langile, Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran, harrapatu zituenean azpian. Une hartan autobidean zegoen Ximun Fuchs, Hondamendia antzezlaneko zuzendaria, geldirik, konpainia berberak elkarlanean sortutako aurreko antzezlanaren emanalditik bueltan: “Ikusten zen mundu guztia ateratzen autoetatik, inork ez zuen ulertzen zer gertatzen ari zen. Munduaren amaiera bat zen, edo lehenena”. Eskuetan hartu beharreko zerbait iruditu zitzaion. “Istorio horrek badu mitotik: mendia erori zaigu gainera. Langileak beharrean edo lanean erortzen dira oraindik, esklaboak bezala. Kasik astero hiltzen dira langileak lanean eta onartzen dugu. Gizarte bezala onartzen dugu. Gure ongizatearen izenean, kontsumitzaile izatearen izenean, onartzen dugu. Gero eta zaharrago joatea lanera, erretiroa atzeratzea. Zabor guzti horrek in goaz. Ongizatearen zaborrak heriotza ekartzen du. Horrek ematen du zer pen-

tsa gizartearen baitan”, dio Fuchsek. Zer da, bada, zaborra metafora bat ez bada?

2020ko martxoaren 14a zen Espainian, pandemiagatik, lehen aldiz etxean geratzeko agindu zutenean, eta berdin egin zuten hiru egun beranduago Frantzian. “Istorio honek tragedia greziarraren kutsua du; mendia erori da bi pertsonen gainean”, dio Harkaitz Cano obraren idazleak. “Karga tragiko horri pandemia global mundial baten traba gehitu diogu”. Izan ere, obrak Zaldibarrereko luizia eta ondorengo pandemia nahasten ditu bere horretan. Ezbehar bat eta gero beste bat. Gai batek bestea estaltzea ekarriko du, historiaren buklea, errealtatean gertatzen den bezala. “Gerra nuklearra da orain eta gero beste bat izango da. Bagoaz paretaren kontra gero eta bizkorrago eta indartsuago, abiadura handiko tren bat badoa paretaren kontra”, Fuchsek. Dena den, historikoki pandemia eta zabortegeen artean harremana dagoela azaleratu du Canok, lehendabiziko zabortegeiak pandemiei aurre egiteko sortu zirela esanez.



BELARRIAK ETA BEGIAK ERNE

“Askotan hitza gutxienezkoa da”, dio hitzen egileak. “Testua lau edo bost gauzen artean bat da. Galdetu aktoreei; hitz egiten duten bitartean aldatu egin behar dira arropaz hurrengo pertsonaiarako eta aldi berean mugitu egin behar dira lekuz, edo foku bat hartu”. Antzezlan honek, gainera, ikuslegoa ere mantentzen du erne. Estimulu bat baino gehiago gertatzen dira batera hainbat momentutan, eta itogarria dirudien arren, gaia bera modu bisualean adierazteko apustuak aberastu egiten du proposamena, ikuslea bihurtzen baitute aktore bat gehiago. “Artista bezala zer kontatzen dugun, horrekin ere bada istorio bat. Pandemia eta



Zaldibar hor daude, noski, baina baita ere kontakizuna, nola kontatzen den”, adierazi du Fuchsek. Kazetari bat da protagonistetako bat, dantzari bat ere bai. “Arteaz ere ari gara gu artistok. Beti umorearekin saiatzen gara zorrozki zirikatzen, bakoitza gure paperean. Zerbait dugu kontatzeko. Zer kontatzen dugun, nola kontatzen dugun, norekin eta zertarako. Gauza horiek inportanteak dira publikoarentzat: esatea zer kazetaritza mota, zer arte mota nahi dugun komunitate gisa”.

Telebistak edo zinemak ez bezala, hitzak eta esaten denak pisu handiagoa dauka teatroan beste ikus-entzunezko batzuetan baino. Literaturaren eta

ikus-entzunezkoen arteko erdibidekoa izendatu du Canok. Dena den, argia da antzezlan honetan komunikazio bisualari eman dioten garrantzia. Horretarako errekurso ugari erabili dituzte, antzezlanaren nolakotasuna borobiltzeko baliagarriak izan zaizkienak: zuzeneko zein grabatutako musika eta kantuak, zuzeneko irudiak, irudi errealak, pantaila, letrak, publikoko espazioa, fokuak eskuetan, itzalak, aldagela oholtzan, kantua eta dantza. Eszenografia desordenatua, eta zaborraren gainean, dotorezia. Markatutako espazioak sinpleak eta ulergarriak.

Bitartean zaborra geldirik eta gainean noraezko mugimendua. Solu-

ziorik ez. Ardura norena da? Noren eskuetan daude euren bizitzak? Zerk du garrantzia eta norentzat? Zentzurik ba al du izurritearen aurrean osasuna bermatzeak, lanaren aurrean heriotza onartzen denean? Egiak ba al du amaierarik? Bakoitza berera. Zama pasaz batak besteari. Hamaika gertaera, sentipen eta emozio gertatzen dira batera, oso azkar, oso bizi: “Horrela izan zen pandemia”, dio Canok.

Zazpi dira taula gainean: Maite Larburu, Ander Lipus, Manex Fuchs, Ruth Guimerá, Eneko Gil, Ane Sagués eta Jon Ander Urresti. Baina hogeit hamar pertsonaia baino gehiago antzeztzen dituzte: langileak, senideak, kazetariak, politikariak,

kolaboratzaileak, erizainak, osasun sailburuak, enpresariak, artistak, eriak eta abar. Ez dute denek denekin harremanik, baina konektatuta daude. Problematika baten aurreko ikuspegi desberdinak ikus ditzakegu: adinaren arabera, osasun

Zentzurik ba al du izurritearen aurrean osasuna bermatzeak, lanaren aurrean heriotza onartzen denean?

lanaren arabera... Badira hitza eta boterea dutenak, edozer aldatzeko grina dutenak, kontziente direnak, bere zilborrari begiratzen diotenak, mugak jartzen dituztenak, mugak betetzen dituztenak, salto egiten dutenak. Helburua pertsonaien konplexutasuna azaltzea izan dela kontatu du idazleak, hezurretaraino iristea, bakoitzak bere ahultasun unea ere

izan dezan: "Guztiek dute unerren bat non arrazoi desberdinengatik amildugiaren ertzean dauden edo sentitzen diren: larri edo humano. Gehienek ez dute amaitzen hasten diren leku berean". Izan ere, zuzendariak esan duenez, boteredun pertsona oro eta hitza egiteko gaitasuna duen hori kuestionatzen duten arren, pertsonaiak humanitate gordinean jarri nahi izan dituzte: "Hau ez da salaketa bat, hau beste lan bat da".

ERREALITATEAREN ISPILU DEFORMATUA

"Ez da panfleto bat, ez diogu hau gaizki da edo hau ongi da. Ez gara nor hori erraiteko, ez gara gai. Ez gara ez apaizak, ez predikalariak, ez militarrik, ez politikoak. Antzerkilariak gara. Deformazio puntu batekin kontatzen dugu; errealitatea askoz ere gordinagoa, gogorragoa, krudelagoa eta erridikuloagoa da", Fuchsek.

Antzezlan aurrera ateratzeko asko dokumentatu direla kontatu dute, Zaldibarren eraildakoen senideekin eta hainbat erizainekin izan direla nola bizi duten entzuten. "Baimena eskatu dugu

hori kontatzeko". Eta antzerkiak egia-tik badu, egia beraren zalantza partekatzen duten arren antzezlanean bertan. Zaldibar aipatzen da, baina pertsonaiak fikziozkoak dira. Hori garatzeko inguruko testigantzez baliatu da idazlea. "Oraindik mugitzen gaituen zerbait da, oraindik mugitzen ari delako. Errealitatearen erantzukizuna eta fikzioaren askatasuna. Konbinazioa hori da".

Gaia iluna da, latza eta gogorra, umorea falta ez zaion arren. Gertuegi edo urrunegi dagoen zerbait kontatzen dute, batzuek gogoratu nahi ez dutena, beste batzuek ahaztu ez dutena. Bi urteko kronologiarekin jolasten dute, eta denboraren nozioa galdu arren, jendeak ahantzita duela iritzi dute. "Dena oso azkar kadukutzen da garai hauetan. Hain azkar doa dena, duela urtebete gertatu dena jada gogoratu egin behar dugula. Ahaztu ditugu. Gertaera kolektibo hori edo memoria ariketa kolektibo hori -ariketa performatibo, memoristiko, kronika, salatzaile edo nahi duzun bezalako hori- ederragoa da elkarrekin gertatzen denean. Eta hori antzerkiak bermatzen du".



ARTEARI KEINU

Pandemia hasi eta kazetari askok galdetzen zuten ea zerbait aldatuko zen, zerbait ikasiko ote genuen, aro baten amaiera edo hasiera izango ote zen. Gauzak desberdinak izango dira? Bizitzari aurre egiteko beste modu bat edukiko dugu? Gidoilariak dio ezetz. Aldatu aldatuko direla, “kontrol gehiago eta askatasun gutxiago, baina konstante bat da hori azkeneko hogeita hamar urteetan”, irribarre tematiz.

Hondamendia lanak badu, konstatu dutenez, publikoan eragiteko asmorik, erreakzio bat bilatzen. Ikuslea ez dadila berdina izan sartu eta ateratzen denean. Familiari, arteari, zaborrari, langilegoari, erizainei, medikuntzari, gorputzari lotuak diren istorioak dira. Publikoa uniforme ez dela sinetsita interpretazio desberdinak espero dituzte, eta jendeak bere egitearekin amesten dute. “Hau nire historia da, gertatu da han, baina nire historia da”.

“Antzerkia eta demokrazia batera sortu ziren, momentu berean, eta ez da kasualitatea. Demokrazia baten esparru bat da antzerkia, momentu libre bat non gauzak esaten diren, mintzatzen diren eta kolektiboki eta indibidualki bizitzen diren. Pantaila baten aurrean ez”

Pandemia eta haren ondorioak ez dira amaitu eta Zaldibarreko gertakaria ez da argitu. Artea ez da lehengo egoerara itzuli. Hori ere azaleratu nahi izan dute antzezlanean, dantzaria den pertsonaia bat protagonista bihurtuz, kasu, baita egiten dituzten aipu batzuen birtatez ere. “Ikusi dugu, pandemiak aski erakutsi digu: artea ez da ezinbestekoa. Janaria bai, footinga bai. Eta antzerkia ez. Elkarrekin gure mitoak kontatzea ez da ezinbestekoa. Eta nik uste dut baietz, ezinbestekoa dela. Bestela kontsumi-



Hondamendia

Emanaldiak:

Urriak 14 / Luhuso

Urriak 16 / Markina-Xemein

Urriak 21-23, 28-30 / Donostia

Azaroak 1 / Eibar

Azaroak 6 / Arrasate

Azaroak 10 / Larresoro

Azaroak 18 / Hendaia

Azaroak 20 / Bilbo

Azaroak 22 / Hernani

Azaroak 24 / Santurtzi

Azaroak 27 / Lesaka

Abenduak 2 / Zarautz

Abenduak 3 / Gernika-Lumo

Abenduak 11 / Leitza

2023an data gehiago

tzaile hutsak bilakatuko gara. Zine-man jauskera handi bat ekarri zuen pandemiak, berreskuratu ez dena. Antzokian ikusiko dugu. Ez dira soilik artistak, gizarte oso bat gelditu da eta gizarte oso hark hartu du telebista edo pantaila baten aurrean egoteko ohitura. Euskaldun bezala, gure heriotza da, zeren eduki guzti horiek ez dira euskaraz. Horrez gain, ez gara komunitate bezala biltzen. Antzerkia eta demokrazia batera sortu ziren, momentu berean, eta ez da kasualitatea. Demokrazia baten esparru bat da antzerkia, momentu libre bat non gauzak esaten diren, mintzatzen diren eta kolektiboki eta indibidualki bizitzen diren. Pantaila baten aurrean ez. Ez diot ez dugunik pentsatzen, ez dugunik izpiritu kritikoa garatzen, baina ez da erreakzionatzeko edo partekatze modurik, ez bada beste pantaila batzuen bitartez. Orduan dena komertzializatua da. Gure harremana normalean komertzializatua da. Antzerkia

oraindik aski arkaikoa da, hein batean, horretatik askatzeko. Eta hortaz mintzo gara baita”.

“Yotuben, Netflixen, Filminen... eskura daukagu dena, baina antzerkiak gaurkotasan eta berezitasun hori dauka: hemen eta orain eta zuretzat gertatzen ari dela, eta bihar berriro egin arren ez dela berdina izango”, gaineratu du idazleak. Ildo honetatik eta antzerkia eskola dela sinetsita, transmisioan jarri nahi dute indarra: txosten pedagogiko bat ireki eta irakasle zein ikasleei zuzenduko zatzaie, antzezlanea eskoletara eramanez. Web-orrian ere zintzilikatuko dute, bai eta hortik ateratzen diren kantuak, bertsoak, marrazkiak, dokumentalak, filmak... ●



aholkukoop
Fiskala Kontablea Laborala

EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA

aholku@aholku.eus · 943 005 680
aholku.eus



LIBURUA

Jaiki eta hartu mikroa!



METROKOADROKA

MISS KARAOKE OIER GUILLAN & METROKOADROKA

EHAZE, 2022

AMAIA ALVAREZ URIA

Ederra izaten da sorkuntza prozesuak ezagutzea eta emaitzarekin bakarrik ez geratzea. Hori da EHAZEK, Oier Guillanek, Metrokoadrokak eta Pez Limbok liburu honekin egin diguten oparia. *Miss Karaoke* antzezlanaren taularatu arteko bidea luzea eta aberasgarria izan da, eta irakurle-ikus-entzuleok aukera dugu, nahi izatera, haren berri izateko.

Liburu honek EHAZEren sar-hitza, Edurne Azkarateren hitzaurrea, Javier Barandiaranen hitzatzea, eta Oier Guillanen eta Metrokoadroka sormen laborearen biografiekin batera, hiru atal nagusi ditu: 1) 2017tik 2019ra antzeztu zen testua, 2) Oier Guillanen sormen prozesuaren kontaketa, eta 3) Arriaga, Victoria Eugenia eta Printzipalaren "Dramaturgia berriak" deialdira aurkeztu zen jatorrizko testua. Horrez gain, ba-


dira prozesua dokumentatzen duten argazkiak eta antzezlanaren bideo-grabazioa eta bertan erabilitako kantueta garamatzaten QR kodeak.

Baina hori ez da guztia: prozesuaren bilaketan sakondu nahi duenarentzat aukera dago *Miss Karaoke* testuen aurrekariak izan ziren Oier Guillanen 2010eko *Arra arraroa* testu poetiko-dramatikora edota 2016ko egile beraren *Mr. Señora* lanera jotzeko.

"Zer da gizon izatea?" galderari erantzun nahian idatzi zuen 2010eko lana. 2016ko lanaren kontrazalean "ileordea jantzi eta armairutik ateratzeaz" mintzo da. Metrokoadroka taldearen webgunean *Miss Karaoke* antzezlanaren azpiztitulua "Zerk definitzen zaitu?" da. Beraz, barrukoaz, ezkutukoaz, kontraesanez, geure burua ezagutzeaz dihardute lanok.

Liburuon azaleko irudiek ere pistak ematen dizkigute: bikoiztuta agertzen zaigu pertsonaia lehen eta hirugarren lanetan, hasieran bata besteari entzuten dio esan behar duena eta amaieran batek abesten duen bitartean besteak bizkarra ematen dio erdi biluzik eta go-goetan. Bigarrenaren komunean eserita agertzen da protagonista bularreko ileak bistan soinekoa jantzita, eta hirugarrenean burusoil bizardun makillatua berokia zabalik duela kantuan ari da, zutik, harro.

Hau da egin nahi nizuen girotzea, orain eskuratu liburua eta ezagutu itzazue antzezlan hau elkarlanean egiteko eman dituzten urratsak; Marina, Unai, Javier eta Iñakiren ekarpenak eta pertsonaiak; aipatutako galderen eta kezken hezurmamitza. ●



MUSIKA

Bi altxor eta sorleku bakarra: Buenawixta



Barrakos taldea Andoaingo Gaztetxean, 1994ko Gabonzahar gauean.

IKER ILARRAMENDI

IKER BARANDIARAN

Asko poztu nintzen Artza anaiek diskoetxe berria abiaraztearekin bat Barrakos-en maketa –non erosi-ko nuen, Boga tabernan?– berreskuratu eta biniloan ateratzeko asmoa zutela jakitean. Izan ere, aipatutako maketa –1990koa– gure musika historian ohar-kabea gelditu den altxorra da. Hor ziren jada, besteak beste, La Perrera eta Nuevo Catecismo Católico taldeetan arituko zirenetako batzuk, eta hori hala izanda ere, bertan batutako zazpi kanteke balio oso kuttuna dute: Andoaingo Gaztetxe zaharrean –non bestela!– ikusi eta ikasitako hardcore zein punkaren zantzu nabarmenenak bere estilo oso propiora eramanda, melodia oso nabarmenekin, aitzindariak ziren hitz single baina sar-

korrekin, eta garai hertsia haiei bizkarra emanez oso modu askean. ‘BERTSO’rekin hasten da Cynics taldearen tankera-ko harmonika eta erritmo aldaketadun hardcore-punka. *Hurbildu* da hardcore-punk melodiko gutizia. *Azken arnasa* da erabat borobila: Andoaingo uzta hura, Rhythm Pigs taldearen gitarra pasarteak eta 77ko punka batzeko gaitasuna duena. *Borra* rock-and-roll azeleratu instrumentala. *Subteraneo* doinu itsaskorrek eutsitako indar geldiezina. Buenavista da kolorerik gabeko semaforo arteko hardcore kamikaze eta askea, eta haien etxea zenari gorazarrea. Eta *Intenta entender* da Buenawistako punk-rockaren aurrekaria dela egiaztatzen duen pieza melodikoa.

Eta, hara!, diskoaren bestaldean igan-

deetan isil-isilik mezara elkarrekin joaten ziren Los Fresas-en grabazioa, aurretik argitaratu gabea: hor ere Barrakos-eko bat, zein Teen Dogs eta NCC taldeetako eta Andoaingo hardcorearen bigarren belaunaldiko figurak. *Dejadme en paz* da NCC filtro gabe, pisutsuagoa. *El espejo* da punk oldarkorra eta ramonianoa. *Para ti* Gonzalo Pleasure Fuckers-en autoan abesten. Punk-rock ilun eta kontsumista lantzen dute *Almacenes Txu-Pamela* kantan. *Oroipenak* izan daiteke *En llamas* abestiaren aurrekaria lasai asko, ederra! Eta, azkenik, The Troggs taldea gogora ekarri dute *Tú mientes* irakurketa berezian. Eskerrik asko Lazkaoko anaiei eta hau posible egin duzuen beste guztioi: Jones, Xebax... ●



**BARRAKOS /
LOS FRESAS**

BARRAKOS / LOS FRESAS
ARTZA RECORDS, 2022



Lehiaren xarma

 AMETS ARANGUREN
 BERTSOZALE ELKARTEA

Bertsolari sena deritzonari heldu behar izanen zion Xabat Illarregik Amurriora kantatzera joan behar-ko zuela jakitean: inprobisaziorako prest. Bueltan da Euskal Herriko Topaketa Sozial Nagusia. Iruñean, asko irrikaz eta pozik gaude ekitaldi sozial gorena gure hirian izanen delako lehen aldiz eta Bilbo aldeko jendeak ikusiko duelako Bilbotik Iruñea bezain urruti dagoela Iruñetik Bilbo (hau da, ez hainbeste).

Baina bueno, itzul gaitezen salto batean Arrasatera. Aurtengo sintoniaren inguruko lehen komentarioak autoan entzun ditut, bidean. Datu inportantea: bertsolariz inguratua egin dut txangoa. Nerea Erbitik konposatu du txapelketarekin batera herriz herri ibiliko den sintonia: erritmo joko konplexuak, onomatopeiak, konpas konposatuak... Oso interesgarria musikari batendako. Aztoratuegia lehiaren diren bertsolariarendako?

Bertsolariek bertso-doinu berriak estreinatzeke probesten dute txapelketa.

Gaurkoan, Amurizak bi. Hasierako agurrean bat, ganbarako lanean bestea. Doinu berriak bertsoa edertu dezake, asmatzekotan, baina despistatzeko bidea ere izan daiteke asmatu ezean. Presentzia handia du Amurizak kantuan, indarra transmititzeko gaitasun berezia duela esanen nuke, baina ganbarako ariketarako egindako Zea Mays-en *Negua joan da* ta kantuaen moldaketak ez dio hori nabarmentzen lagundu. Badira bertsolarien kantaerak edo doinu hautaketak ezkututzen dituzten beste ertz batzuk ere. Xabat Illarregiren kantaera ederrak erdipurdiko bertso bat oso ongi sal diezazuke edota errepikapena duen doinu bat hautatuz, publikoari errepikapena kantatzeko aukera emanez, apelazioak plus bat ematen dio bertsolariari.

BTN txapelketa da, lehia. Sarasuak lehiarekiko duen irakurketarekin bat etor gaitezkeen asko inguruko lagun bertsolariei haien apustuak eginarazi nahian gabilta, ordea. Behin Ion Celesti-

BERTSOLARI
TXAPELKETA NAGUSIKO
BIGARREN SAIOA

NOIZ: irailak 25

NON: Amaia antzokia (Arrasate)

nok aipaturikoarekin egingen diot *kontra* Sarasuari. Lehiak, bere alde txar guztia onartuta, edertasuna dakar: beti da ederragoa 22-21 bukatu den pilota partida 22-6 bukatu dena baino.



Urteetako lana arratsalde batez jokoan jartzea da txapelketa; pentsatu bitarteko mikro-mugitze jolasa; gaiaren arabera jendaurrean noraino biluztu nahi duzun erabakitzea eta, batzuetan, segur aski, nahi baino biluziago agertzea.

Txapelketako saioetara goazen ezjakinok dugun epaile sindrometik egingen dut balorazio bakarra, zero objektiboa (bueno, pixka bat bai) eta hein batean emozionala: Alkaizarena zen saioa eta anaia leitzarrak espero nituen ondotik, baina zer esan behar dut nik? Hori botata, denei inbidia sanoenetik eta miresmen osoz begira segituko dut besaultik, hauek hitzekin magia egiten duten bitartean (bertso molde batzuetatik gertuago eta beste batzuetatik urrutiago, noski). ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA KATHARINA PAVLETICHEK, TXILEKO APRUEBO KANPAINAKO KIDEAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

3			9	8				
	4	9	7	1	6	8		
1	7	8	3	2		4	6	9
4			6	5				3
		3						7
	9	1	8	7		2		4
8		4			1		7	6
9	1		5			3	4	8
	5						9	2

ERRAZA


9	4	5	7		8		6	1
					4		5	
	6	7	1	3				
				5		9		
		6	4		2			
5		4						
6								
	7				3	1	8	
	2		9			5		

ZAILA

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Burusoila. 2. Urratsak emanaz.
3. Asiako estatua. 4. Fidel.
5. Aldizkariaren lehen orria.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				N	O	T	S	U
2	B				K	E	T	A
3	K	O				Z	I	O
4	A	Z	P				D	E
5	E	G	O	I				R
6	O	R	K	A	T			

EBAZPENAK

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

PUZLEA: "TXILEK IKUSI DU KONSTITUZIOA EZ DELA ALDATU EZIN DEN TESTU BAT, SINETSARAZI NAHI DIGUTEN BEZALA, NAHIZ ETA PINOCHETEN GARAITIK ERRO SAKONAK IZAN." **5XS:** 1. SOILA, 2. OINEZ, 3. INDIA, 4. LEIAL, 5. AZALA, 6. ORKATILA, 7. LAINOTSU, 8. BILAKETA, 9. KOALIZIO, 4. AZPIALDE, 5. EGOILAR, 6. ORKATILA.

Daybelyn Juares

ZAINTZA DUINAK ALDARRI



JATORRIA

"Alianza jaio nintzen, Honduras hegoaldeko landa herri ederrean, baina 2015etik Katalunia dut bizitoki. Nire herrialdetik alde egin behar izan nuen, han dagoen kriminalitate handiagatik. Nekazaritzatik eta arrantzetatik bizi zen inguru batean koskortu nintzen. Gaur egun, bizilagun anitzek alde egin behar izan dute, enpresa transnaziionalak sustatu duten itsaskien bilketaren gehiegizko ustiapenagatik. Kataluniara iritsitakoan zaintzarekin lotutako lanetan murgildu nintzen, argi baitago, berte lan-eremu batzuetako ikasketak izan arren, emakumea, migratzailea eta langile-klasekoa izanik, berte lan-eremu batzuetan lan egin ahal izateko esfortzu handia egin behar dugula".

"Zaintzaileon borrokak ez du lehentasunik feminismo hegemonikoarentzat"

Dabeylyn Juares (Alianza, Honduras, 1992) aktibista eta gizarte integratzailea da La Violetan, Bartzelonako ASSIS harrera zentroak kudeatzen duen inklusio bizitegi-zentroan. 2015ean Bartzelonara migratu zuen eta orduraz geroztik zaintzari lotutako lanak egin ditu, ikasketekin batera. Gaur egun, zaintza duinen alde borrokatzen duen Amb Cura Zaintzaileen Elkartearen koordinatzailea da.

SAIOA BALEZTENA JORDI BORRÀS

Noiz eta nolatan iritsi zinen Kataluniara?

Bartzelonara 2015ean joan nintzen. Nire ahizparekin elkartu nintzen eta hunkigarria izan zen: hamar urteren ondotik besarkatu ahal izan ginen berriz. Egun hartatik seguru sentitu nintzen, baina, era berean, ziurgabetasunez, ezagutzen ez nuen herrialde batera iritsi berria nintzelako, lagunik gabe. Nolabait, nire bizitza han hasi zen, 23 urterekin.

Zaintzarekin lotutako lanetan hasi zinen. Zergatik?

Tira, argi nuelako, Hondurasen lan esperientzia eta ikasketak izan arren, emakume migratzaileoi bakarrik zaintzarekin lotutako lanak egiten uzten digutela, dugun formakuntza eta lan interesak alde batera utzita. Bartzelonara iritsi eta hilabete guttira hasi nintzen lanean. Emakume migratzaile zorionekoa naiz, nire ahizpa eta bere bikotekidea arduratu zirelako ni ongi egun nendin,

eta ez zitzaidan deus faltatu. Yoga, katalana eta geriatria laguntzaile izateko ikastaroak egin nituen eta etxe barneko zaintzailea izaten lan egiten hasi nintzen.

Zenbateraino uste duzu zaintzaileen aurkako indarkeria nagusi dela? Zure azalean pairatu duzu?

Bai, ELA zuen pertsona bat zaintzen ari nintzenean, arratsez txakurra paseatzera atera nintzen eta niri eraso egiten saiatu ziren kalean. Etxera iritsi nintzenean bere semei deitu nien eta erran zidaten isiltzeko, zer errango ote zuen Poliziak, papeirik ere ez nuela... Ikaragarri gaizki sentitu nintzen, gertatu zitzaidanak garrantzirik izango ez balu bezala. Berez, euren familiakoa nintzela erraten zidaten...

Zure ahizpa ere zaintzaileen eskubideen aldeko aktibista da. Elkarrizketa batean erran zuen



"Ez dut ezagutzen zaintzaileenak baino baldintza eskasagoak dituen lan sektorerik".

barne-zaintzaileak XXI. mendeko morroiak zaretela. Ados zaude?

Noski. Etxean itxita bizi diren emakumeak dira, eta deskantsatzeko ordu hagitz guti dituzte. Barne-zaintzaile anitzei gertatzen zaie familiek medikuarenera joateko ere baimenik ematen ez dietela. Ez dut ezagutzen zaintzaileenak baino baldintza eskasagoak dituen lan sektorerik.

Feminismo zuriak zuen ardurak kontuan hartzen al ditu?

Zaintzaileen borrokak edo Atzerritarak Barneratzeko Zentroetan itxita bizi diren emakumeen baldintzen kontrako borrokak ez dute lehentasunik feminismo hegemonikoan. Martxoaren 8ko manifestazioetan aldarrikapenak egitearekin ez da aski, eguneroko borroka izan beharko luke.

Berriki, Amb Cura elkarteak aurkeztu duzue. Noiz eta nola sortu zen?

Amb Cura zaintzaileen elkarteak apirilean jaio zen, zaintzako langileen es-

kubideen aldeko hainbat aktibistak sustatuta. Denok lan egin dugu barne-zaintzaile gisa eta, ondorioz, azalean bizi izan ditugu lan baldintzak. Ezinbertzekoa iruditu zitzaigun elkarteak sortzea, eta hilabete gutitan 700 lagun batu zaizkigu Katalunia osoan.

Zergatik izendatu duzue Amb Cura?

Argi genuen elkarteak katalanez izendatu behar genuela, hizkuntzaren aldeko apustua bazelako inklusio osagai ezinbertzekoa. *Amb cura* adierazpen garrantzitsua iruditzen zaigu, "kontuz" erran nahi duen heinean, batez ere Katalunian erabiltzen delako zerbait arretaz eta kontu handiz egiten duzun zerbait adierazteko. Zalantzarik gabe, zaintzaren afera ezin hobeki islatzen du; bertatik bertarako lana egiten dugu, zaintzen dugun pertsona estimatuz, gure lanean sufritzen dugun lan esplotazioaz haratago.

Espainiako Gobernuak etxeko langileen baldintzak arautuko dituen errege dekretua onartu

berri du. Haren bitartez, langabezia ordainsaria jaso ahal izango duzue aurrerantzean. Zer deritzozue?

Aurrerapauso garrantzitsua iruditzen zaigu, baina ez du arazoa errotik konpontzen. Etxeko langileen gehiengoak lan kontraturik gabe lan egiten du, administrazio egoera irregularrean, beraz, ez dute euren egunerokotasunean aldaketarik ikusiko. Kontratua duten langileei dagokienez, gehiengoa euren Gizarte Segurantzaren ordaintzera behartuta dago, soldata eskasa izan arren. Eta dekretu horrek ez ditu arazo horiek konpontzen.

Zeintzuk dira, aurrerantzean, erronka nagusiak?

Zaintzaren langileen baldintzak hobetzeko ezinbertzekoa da gizartearen eredu aldatzea eta zaintzaren lanari balioa ematen hastea. Ezin dugu orain arte bezala jarraitu. Premiazkoa da arduradun politikoen erantzukizuna, zaintzari duen balioa eman eta ongizate-estatuaren zutabe gisa har dezaten. ●

Denontzat


 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Hizkuntza-politikari buruzko debateen aurrean –ei, ei, aber, ez joan oraindik, eman aukera bat artikulua honi– sentitzen hasia naiz Bill Murray pelikula hartan bezala: planteamenduren bat egiten da, kontua korapilatzen da bateko eta besteko iritziekin, kinki-kanka dialektikoak Twitterren. Eta biharamunean iratzargailuak Sony & Cherren *I Got You Babe* kantarekin esnatzen nau berriz, debatea dago aurreko egunean zegoen leku berean, jarrerak eta argudioak atzoko igual-igualak, baina gauza bat aldiro okerragoa da: Marmotaren Eguneetik atera ezinda egoteak sortzen didan desesperazioa.

“Euskara denontzat” adierazpena da saga errepikakor horretako azken ekarpena. Ekimenak hamabi puntu jarri ditu mahai gainean, EAEko hizkuntza-politika “oinarri pluralistekin” sustatu nahian. Eta horrelako gauza gehienekin gertatzen zaidan bezala, eskaera batzuekin oso-oso ados nago; eta beste batzuekin berriz, tira, ikusiko duzue aurreraxeago.

Konbentzituta nagoenez gaiari modu *destroyer* batean heltzeak ez diola inorri mesederik egingo, interesgarrienak iruditu zaizkidan puntuak lehenbizi: euskara ikastea doan izatea EAEn. Guai, super ados. Jendeak euskara ikasteko denbora izan dezan, diru publikoa inbertitzea ikasi nahi dutenen laneko liberazioetan. Buah, primeran.

Gero, bueno, gainontzeko puntu gehienak euskararen ezagutza egiaztatzeko moduen inguruan ari dira, nahiko burokratikoak iruditu zaizkit, transmititzen den mezua da erabiltzen deneko gehiegi eskatzen dela; eta pixkanaka nire aldartea zimeltzen joan da, besteak beste ikusita ez dela inolako balorazio kritikorik egiten 2012ko Celaaren de-



kretuaz –batxilergoa euskaraz egiteagatik automatikoki B2 maila jasotzea eta karrera euskaraz egiteagatik C1a–, nahiz eta indarrean jarri zenetik hamar urte pasa diren. Nahiko denbora, nik uste, neurri eraginkorra izan ote den baloratzeko. Eta eraginkorra diodanean, ez dut esan nahi titulu bat errazago lortzeko balio izan ote duen, hori nikelatuta geratu baitzitzaien.

Hala ere, gizarteko tendentzia bat artikulatzen duen heinean, kontuan hartu behar “Euskara denontzat”. Eta hala ere, gizarteko beste tendentzia batekin talka egingo du, ia seguru, portaletik atera bezain laster. Marmotaren Eguna ez baita kasualitatez gertatzen: badago EAEko biztanleen parte bat, hizkuntza-politikari buruz edozer proposatzen duenean dagoentxo hau duena abiapuntu eta helmuga –tituluak, lanpostu publikoak, gaur egungo pastelaren banaketaren kontraesanak–. Eta beste

parte bat, dagoentxo hau kontsideratzen duena egon beharko litzatekeen guztiaren aperitifa –pantailak, ekosistema kulturala, zerbitzu publikoak, kaleko elkarrizketak, den-den-dena euskaraz egin ahal izatea–.

Lehenbiziko talde horren subkontzientearen adierazpen gisa hartuko dut “Euskara denontzat”: bere hizkera hiper-administratiboarekin, bere argudio klixe samarrekin, bere tranpatxoekin bada ere, uste dut badauzkala osagai batzuk bigarren taldekoak garenok kontuan hartu beharko genituzkeenak. Zeren agian, apika, akaso, noizbait iritsiko da momentua Marmotaren Eguneetik ateratzeko eta azken 40 urteetako hizkuntza-politika benetan aldatzeko; eta agian, apika, akaso, proposamen hau idatzi duten batzuekin ere adostu beharko da zeozer, pluralismoagatik eta, antza denez, elkar entenditzera kondenatuta gaudelako. ●

2023

Ilargia eta

landareak

AGENDA

Egileak:

Jakoba Errekondo eta
Antton Olariaga

Laguntzaileak:

Iñaki Sanz Azkue biologoa

Unai Agirre eta
Eñaut Agirre

bertso zaharrak kantatzen

* Galderen txandan,
publikotik landareen
kontsulta egiteko aukera.

Noiz: Urriaren 13an, 18:00etan

Non: Kultur Etxean

**Alegian
aurkezpena**

Bi hankako
piztientzat

Antolatzailea:

ARGIA

BIZI BARATZEA



Enpresen Etorkizunari *laguntzen, Orain.*

Ehun ekonomiko indartsu baten bidez.

Gipuzkoan dugun ehun ekonomiko indartsua da, gure ongizate-egoeraren oinarria. Hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundia gure lurraldeko enpresen etorkizuna lantzen ari da duela lau urtetik, **Etorkizuna Eraikiz** egitasmoaren bidez.

Sartu etorkizunaeraikiz.eus webgunean eta ikusi gipuzkoarrok zer egiten ari garen gure etorkizunaren alde.

Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN